Haur eskolan eguneroko bizimodua lantzeko marko teoriko bat eskaintzen dugu. Horretarako, gogoan izan ditugula hori gauzatzeko behar diren ezaguerak oinarrizko ezaugarri eta beharrizanei eta haur txikiek ikasteko duten modu eta gaitasunari buruzkoak eta halaber, ezaguera horiek haur eskolaren, metologiaren eta irakaslegoaren antolamenduan duten eragina.

Orobat, hausnarketa teoriko honekin batera, esperientzia batzuk aurkezten ditugu. Interesgarriak iruditu zaizkigu eta, euren testuinguruen kalitatea eta aniztasuna dela eta, haur eskolako eguneroko bizimodua era aberats batean aurkezten lagunduko digute.



"Virgen de los Dolores" Haur eskola-Aguilas

# BIBLIOGRAFIA

**BATZU (1989): "La escuela infantil de 0 a 6 años". Madrid:Anaya**
**BATZU (1989): "Pedagogía de la escuela infantil". Barcelona:Santillana**

Bi liburu orokor hauek Haur Eskolaren garrantzia azpimarratzen dute eta irakasleen prestakuntza eta Haur Eskolaren funtzioa argitzea dute helburu nagusia. Gai orokorrak eta hezkuntzaren arlo ezberdinak aztertzen dituzte liburu biek.

Esan dezakegu, liburu hauek kontsulta-liburuak direla, arlo bati edo besteri buruzko informazioa jasotzeko.

Nahiz eta Liburuen kapituluen egituraketa antzerakoa izan (sarrera, edukina, iradokizun praktikoak edo aplikapenak, bibliografia), orientabidea, orokorrean, ezberdina da:

"Anaya"k ateratako liburuan kapituluek ez dute teorizazio-maila oso handia eta orientazio didaktikoa zaindu dute, Haur Eskola eta irakasleengandik nahiko gertu jarriz. Anayako ekipoak batez ere Haur Eskola hartzen du abiapuntutzat: hezkuntzaren funtzioak, Haur Eskolan ematen diren egoerak, arazoak eta landu behar diren arloak eta metodologia. Santillanako ekipoak, nahiz eta Haur Eskolari buruzko hainbat kapitulu eskaini (historia, funtzioa...), abiapuntu bezala haurra orokorrean eta bere osotasunean hartu du eta garapenaren arloak aztertu ditu, oinarrizko teorizazio interesgarriak eskainiz eta eskolara gehiegi "jaitsi" gabe (nahiz eta salbuespenak egon).

Beraz, liburu biek orientabide desberdina dute eta agian osagarriak dira kontsulta-liburu bezala erabiltzen badira.

✠ ✠ ✠

**BENLLOCH, M. (1992): "Ciencias en el parvulario. Una propuesta psicopedagógica para el ámbito de experimentación". Barcelona: Paidós.**

Liburu honek dakarren proposamenak haurren posibilitate kognitiboak hartzen ditu oinarritzat, beti ere egiteko eta ulertzeko gauza diren egitekoetara bideratuz.

Egileak gogoeta egiten du Haur Eskolako haurren gaitasun kognitiboaz eta ingurune fisikoaren ezagutzari dagokionean lor ditzaketen trebetasunez.

Haur txikiak berak ere bidea egin baitezake zientziekiko hurbilketan baldin eta gauza baldin bada "zientifikatzeko" ingurune fisikoarekiko dituen harremanak. Eta esatekoa da, harreman horiek "zientifikatzeko" ezinbestekoa duela beldurraren laguntza. Laguntza behar du metatzen doan esperientzia eremu fisikotik eremu sinbolikora iragan ahal izateko. Horixe da, hain zuzen, irakaslearen lanetariko bat irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan.

Zientziei dagozkienak ikasteko, ezinbestekoa izango da hiru eratako elkarrekintzak bideratzea: norberarekiko, gauzekiko eta hezitzaileekiko.

Liburuan zehar hiru elkarrizketa hauen gorabeherez dihardu.

Interesgarria den liburua deritzogu, praktika eta teoriaren arteko oreka oso ondo aztertzen baitu; eta, egia esan, behar beharrezko zaizkigu hau bezalako liburuak, oinarrri sendoak eta orientabide aproposak ematen dituelako Haur Eskolan ingurune fisikoaren azterketan sakontzeko.

✠ ✠ ✠

**IRWIN. M., BUSSHNELL, M. (1984): "La observación del niño". Madrid: Narcea.**

Haurraren garapena ezagutu nahi duenenari, behatzen ikastea eta haurren portaeren behaketak erregistratzen ikastea behar-beharrezkoa egingo zaio.

Liburu honen helburuak hauek dira:

- Behaketa definitzea eta behaketaren garrantzia eta zentzua argitzea.
- Garrantzizko behaketa-teknikak erakustea (erregistroak, laginketa teknikak, etab.)
- Teknika bakoitzaren historia eta bilakaera haurren ezagupenean azaltzea.

Hezitzaileentzat, oso liburu profesionala, funtzionala eta erabilgarria.

✠ ✠ ✠

**JIMENEZ,N.,MOLINA,L. (1989): "La escuela infantil". Barcelona:Laia**

Liburu hauen egileek premisa hauek hartzen dituzte oinarritzat:

- Haur Eskolaren garrantzia (inbertsio ekonomiko handia baita).

- Haurren ahalmena beren bizitzaren eraikuntzan parte hartzeko.

- Haurren garapenean, helduen rol aktiboaren garrantzia.

Lehenengo zatian (3 kapitulu), behaketa zuzenean eta erreflexio teorikoan oinarrituz, egileek eskolako gaur egungo arazo batzuk aipatu eta aztertzen dituzte: haurraren garapenaren errespetua, interesen onarpena, aktibitatearen garrantzia.

Honetaz begiradatxo historikoa egiten dute, Eskola Berritik Vigotskyraino, Piaget eta Bruner barne daudelarik, hezkuntz kopartizipatua edo partaidetzazko hezkuntza aukeratuz.

Bide honek denek parte hartzea proposatzen du, denek daukatelako zerbait aportatzeko. Hezkuntz elkarteko partaideen elkarrekintza eta komunikazioa berarekin dakarren hezkuntza planteatzen da.

Bigarren zatian (4.kapitulotik aurrera), Hezkuntz proiektuari buruz mintzatzen dira: Proiektuak kopartizipatzeko kontestuak posibilitatu behar ditu eta prozesu honetan haurren oinarrizko beharrak kontutan eduki eta bideratu: janaria, esfinterren kontrola, norberaren ezagutza, atsedena, afektibitatea...

Egileek behar bakoitza aztertzen dute, behaketarako proposamen zehatzak eskeintzen dituztelarik.

Behar hauek proiektu barnean integratzen dira, ekintza, espazio, denbora, e.a.ekin.

Liburu hau sakona da, oinarri sendoak ditu eta azterketarako eta hezkuntz planifikaziorako elementu interesgarriak eskeintzen ditu.

✠ ✠ ✠

**SAUSSOIS,N. (1986): "Actividades en talleres para guarderías y preescolar". Madrid:Cincel**

Liburu honek antolaketa eredu bat eskaintzen du. Eredu honen bidez iharduera librea ahalbideratzen da eta joku sinbolikoaren esperientziak bultzatzen dira.

Autoreek esaten dutenez, txokoen bidez antolatutako klaseak aukera eraman behar die haurrei denbora egokiro bete dezaten; lan pertsonalean edo/eta talde lanean sortzen dien beharrak kontutan izan behar direla dio; eta, bukatzeko, beren buruen arlo afektiboari erantzun behar diola gogorarazten du.

✠ ✠ ✠



*Kurutziaga ikastola, Durango*

**SELMI,L.,TURRINI,A. (1988): "La escuela infantil a los tres años". Madrid:M.E.C. / Morata**

**SELMI,L.,TURRINI,A. (1988): "La escuela infantil a los cuatro años". Madrid:M.E.C. / Morata**

**SELMI,L.,TURRINI,A. (1989): "La escuela infantil a los cinco años". Madrid:M.E.C. / Morata**

Liburu hauen autoreen helburua, Haur Eskolako geletako planifikazioan oreka bat lortzea izango litzateke: programazio oso zuzenduaren eta espontaneismo hutsaren artean.

Printzipio hauek jarraitzen dituzte:

* Haurra, esperientzia didaktikoan, oinarrizko abiapuntu eta protagonista da.
* Eskolan eta kanpoan ematen den ikaskuntzaren izaera berdina da, baina eskolan proiektuek jarraipena dute, helburu zehatz eta planifikatuekin batera.
* Programazioa irakasleentzat gidatzaile bat izan behar da.
* Eskola bakoitza orijinala, bakarra da eta inguruarekiko lotura duen hezkuntza behar du. Beraz, hezkuntz proiektua bakoitzaren kontestuan sortu behar da.

Ardatz hauek jarraituz, egileek programa zabal bat aurrera ateratzeko, hezkuntz-elkartearen elementu desberdinak kontutan hartuz, material ugari eskeintzen dute.

Material hau hilabeteka dago banatua, batez ere haurren garapena eta ekipoaren segizioa jarraitzeko.

Haur Eskolako irakasleentzat liburu interesgarriak eta baliogarriak.

✠ ✠ ✠

**TAVERNIER,R. (1991): "La enseñanza entre los 2 y los 4 años". Barcelona: Martinez Roca.**

Liburu honen autorea 2 eta 3 urteko haurren bizitzan "paseatzen da", eskola eta geletan, bere behaketa eta gogoetekin batera hainbat ekintza, argibide eta bide eskainiz.

Autorearen ustez, haur txikien eskolaritateak oinarri pedagogiko batzuk errespetatu behar ditu. Besteak beste:

- haur bakoitzak dituen beharrak
- haurren erritmoa eta ekintzak, beraietan oinarritu behar baita gure pedagogia
- irakaslearen rolaren garrantzia: ingurua prestatzen, komunikazioa ahalbidetzen, behaketa egiten....

Liburuak hiru zati dauzka:

1. Haur txikien (2 eta 3 urtekoen) ezaugarriak eta beharrak.
2. Espazio eta denbora antolaketa eta antolaketa pedagogikoa bere orokortasunean.
3. Hezkuntzaren arlo desberdinak eta haien garapena.

Osagai bezala autoreak hainbat argazki, plano eta eskema integratzen ditu liburuaren edukiak argituz eta osatuz, hots, irakurleari lana erraztuz.
Liburua praktikoa eta polita da irakasleentzat eta baita gurasoentzat ere.

✠ ✠ ✠

**ZABALZA,M.A. (1987): "Didáctica de la educación infantil". Madrid:Narcea.**
**ZABALZA,M.A. (1987): "Areas, métodos y evaluación de la educación infantil". Madrid:Narcea.**

Bi liburu hauen bitartez haur hezkuntza plantea daitekeen sakontasun eta konplexotasun osoenean egitea lortzen du egileak. Lehenengo liburuan gehiago zentratzen da hezkuntz ekintzaren soporte eta marko teorikoa lantzen; bigarrenean, aldiz, lan eremuak aztertzen ditu, aurrekoan baino zehaztasun gehiagorekin, beti ere erreferentzia teorikoa ahaztu gabe eta osotasun batean integratuz gainera. Erreferentzia eta autore aldetik izugarri aberatsa da, aberatsa den bezala haur hezkuntza egiteko metodologia anitzen aipamena.

# HAURTZAROA ETA EGUNEROKO BIZITZA: Marko teorikoa

*Nerea Alzola*
*Juanjo Otaño*
ESKORIATZAKO IRAKASLE ESKOLA

*Eguneroko bizitza gauzaz, pertsonaz, ohitura eta azturaz betea dago —hots, behin eta berriro errepikatzen diren eta berritasun, ilusio eta afektibitatez beterik dauden egoerez—; eta eguneroko bizitza horretan joaten da haurra bere nortasuna garatzen. Haur- Eskolak ikaskuntzarako esparru eta gaitzat hartzen du eguneroko bizitza hori, haurrak nola ikasten duen eta nola garatzen den azaltzen duten printzipio batzuen arabera betiere.*

*Hemen aztertuko diren printzipioek "Haurtzaroa eta eguneroko bizitza" gaimultzoan txosten bat osatu zuten, 1994ko azaroan Haurtzaroari buruzko Batzarrean Bartzelonan aurkeztua; eta nolabait ere, han aurkezturiko esperientzien oinarrian dauden printzipioak dira, esperientzia batzuk "Jakingarriak"en ale honetan agertzen direlarik.*

## PRINTZIPIO NAGUSIAK

1.- Haurra bere **inguruko pertsona eta gauzekin etengabeko elkarrekintza edo interakzioan** garatzen da.

Haurra gauza, egoera eta bizilagunekin —heldu nahiz bere adinekoekin— etengabeko elkarrekintzan aritzen da, hauek hizkuntza, sentimendu eta jarreraz osaturiko sarea egin eta jartzen diotelarik inguruan. Beraren eta bizi duen errealitatearen arteko erlazio- eta eragin-prozesuan, haurrak bere irudia gauzatzen du munduaz eta honen barruan bizitzen ikasten du. Bere ezagupenak lortuz joaten da. Pertsona eta gauzekin loturak ezartzen ditu, bere afektua proiektatzen du horien gain, eta ezagunak eta ezezagunak bereizten ditu, ziurtasuna ematen diotenak eta ez diotenak. Bere mugimenduak menperatzen, kontrolatzen, sortzen ikasten du. Ongi eta gaizki dagoenaz bere ideia zertzen du. Labur esateko, bere burua garatuz joaten da, errealitatea ezagutu eta menperatuz.

2.- Haurrak elkarrekintzazko esparruak behar ditu, horietan bere bizitza eta garapena eraikiz joateko. Eta horretarako **Haur Eskola** da esparrurik egokiena.

Izan ere, Haur Eskolaren egitekorik garrantzitsuena —kontraesanean egon behar ez lukeena familiaren edo beste erakunde batzuen egitekoekin, ezta hauek ordeztu ere— gure gaztetxoenei beren burua ezagutzeko esparru egokia eskaintzea litzateke, autonomia eta komunikaziorako, elkarri entzun eta bizitzarekin harremanean jarduteko esparrua.

Haur Eskolak gai izan behar du haurrek hartzen dituzten ekarpen ezberdinak (familiarena, hedabideena, beste harreman batzuena, etab.) jasotzeko; haurraren eta kulturaren artean bitartekari izan behar du, eta, aldi berean, haurrei kultura-sortzaile izaten lagundu.
Duela gutxi egin dioten elkarrizketa batean Emilio Lledók dioenez, "kultura ez da hainbat lekutan dauden gauzak, zuk gauza horiei ematen diezun bizia baizik".



Durangoko S. Frantzisko Ikastetxea

3.- Haur Eskolan, **eguneroko bizitza** ikaskuntza-gai bihurtzen da, eta bertan eraikitzen da bakoitzaren nortasuna ere.

Funtzio garrantzitsu eta konplexu hori gauza sinple askok betetzen du... eguneroko bizitzak betetzen du. Eguneroko bizitzako gauzatxo arrunt horiek —jatea, lo egitea, atsedena edo norberaren garbitasuna, jokoak edo gauzak aztertu eta erabiltzea, jostailuak, ordenadorearekiko harremanak, famili egoerak, sarri errepikatzen direnak edota egoera berri eta aurrikusigabeak— ikusten ez den baina, hala ere, geure ahalbideen kontzientzia ematen digun hori transmititzen dute. Gauza txikiek dute benetako eragina gure bizitzan.

Kenzaburo Oé-k, Literatur Nobel sariaren azken irabazleak prentsari esandakoaren arabera, "huskeria, txikikeria, ausaz aurkituriko galdera batetik abiatuz, unibertsalera irits daiteke". Guretzat ere edozein huskeria da garrantzitsua.

Eguneroko bizitza planifikatu egin behar da —inprobisatu ahal izateko, aurrez sistematikoki eta mailaz maila planifikatu behar dugu—; buru-argitasunez egituratu, norberaren errealitatearekiko arretan oinarritu, haurrekin bizi diren hezitzaileen kalitatean sustraitu eta famili eta gizarte-bizitzarekin etengabeko harremanaren gainean eraiki.

4.- **Haurren behar edo premiak** entzun behar dira.

Haurrak bere inguruan ziurtasunezko testuingurua behar du, bere premiak asetzeko: ziurtasun fisikoa, afektiboa eta ikerketan lagunduko diona, baina aldi berean arriskuari aurre egiteko aukerarekin; ziurtasun horrek pertsona eta gauzekiko harreman eta ukipen pertsonala ere esan nahi du, besteek entzun, estimatu eta maitatu egiten dutela sentitu behar duelarik; nork bere burua eraiki beharra eta prozesu horretan oker jokatzeko eskubidea; nork bere burua ezagutu eta estimatu beharra; frustrazioa jasan eta bideratzen ikasi beharra...

Ikasteak duen arriskuari aurre egin ahal izateko, guztiok, handi eta txikiok, ziurtasunezko esparrua behar dugu.

Haurren premiek kontu berezia eskatzen diote helduari espazio, material eta ekintzen antolamenduan; beraren eskarien aurrean entzuteko prestasuna, eta galdeei erantzutekoa; erronka berriei aurre egiteko laguntza eta estimuluak, ekintza eta lorpenak kontuan hartzea; haurra ohar dadila bera garrantzitsua dela beste norbaitentzat eta kontuan hartzen dutela. Ziurtasunak esparru egokia sortzen du haurraren maila eta gaitasunaren araberako jarduerak garatzeko, eta beharrean dagoena animatu egiten du, estimulatu, konpentsatu eta sendotu.

5.- **Ikaskuntza prozesu bat da,** eta aldaketa dakar berekin. Ikasi eta aurrera egiteak, arazo, kontraste eta norbera den edo norberak dakienaren eta errealitate zehatzaren artean agertzen diren kontraesanak gainditzea inplikatzen du. Norberaren baliabideak mugatuak direla eta egoera jakin bati aurre egiteko ez dutela balio konturatzeak jakin beharra eta aldatu beharra pizten ditu, agertzen zaizkion arazo berriei aurre egiteko, hain zuzen.

Ondorioz, ikaskuntzak aurrez dakiguna aldatzea, zabaltzea eta hobetzea edo sakontzea suposatzen du. Ikaskuntza gauzatu bada, haurrak dakienaren eta egoera berriaren artean, bere eskemen eta ikaskuntza-egoeraren artean sorturiko kontraesan edo gatazka konpondu duelako da. Haurrak kontraesan hori konpondu baldin badu, errealitatearekin elkarrekintzan utzi zaiolako izaten da, zekiena eta aurkezten zaiona kontrastatzen eta tanteatzen utzi zaiolako, konponbiderako aukera ezberdinak eskaini eta hanka sartzeko eskubidea ere onartu zaiolako.

Eta ikaskuntza oro, ez dezagun ahaztu, ikasten jarraitzeko abiapuntu da.

6.- Ikaskuntzaren ikuspegi honek inplikatzen du: haurrak badakiela zerbait, baduela **aurretiazko hainbat ezagupen** —nork bere esperientziaren bidez ikasiak— eta horietan oinarrituz interpretatzen dituela egoerak.

Izan ere, haurrak —baita Haur Eskolan dabilenak ere— hainbat ezagupen ditu, "aurretiazko ideia" batzuk, eta ideia horiek errealitatea era jakin batean interpretatzera eramaten dute haurra, beti bat etortzen ez dena helduaren ikuspegiare-



kin. Familian bizi izandako esperientziek, pertsonekiko harremanek, gauzek, gertaerek, hedabideek eta batez ere telebistak —sozializazio-baliabide goiztiarra,publikotasuna pribatutasunean sartzen duena eta sozializazio-elementu dibergenteak ere sartzen dituena— haurra zenbait esperientzia eta ezagupenez hornituta bidaltzen dute eskolara, eta hauek eskola-errealitatearen pertzepzio eta interpretazioan eragiten dute, eta horren arabera asimilatzen dute mundua, egoerak era jakin batean hautemanez, eta bizipenak, sentimenduak, beharrak, frustrazioak, interes pertsonalak proiektatuz.

7.- **Haurra da hezkuntzaren ardatza.** Izan ere, haurraren bizitza ukitzen duen guztia bihurtzen da hezkuntzaren ardatz, dena baita heziketa-gai, baita naturalena iruditzen zaigun hori ere (loa, janaria...).

Horrek esan nahi du nagusi edo helduek erne egon behar dutela bizitzaren aurrean; eta esan nahi du, halaber, kontuan hartu eta errespetatu egin behar dela eboluzio-momentua, honek erakusten baitizkigu haurraren premia, interes eta ahalbide edo aukerak. Baita ere, haurrak dakienetik, dagoeneko puntutik abiatu behar dela, ez hortxe gelditzeko, garapen-aukera berriak sortzeko baizik. Gainera, errealitatea nola aurkitzen duen eta horretarako zer mekanismo erabiltzen duen jakitea eskatzen du, eta hortik aurrera lanean jarraitu, ikasten ikasteari lehentasuna emanez.

Hezitzaileak haurraren eraikuntza-lana bideratu behar du, eta horretarako ez du ikaslea bera bakarrik abiapuntutzat hartu behar, baita berak nahiz partaide deneko talde hezitzaileak bizitza-kalitate eta hezkuntza-proiektuari buruz duen ikuspegia ere. Komunikazioa da gakoa, haurrarekiko harremana alegia, eta horretan oinarrituz bakarrik asmatuko du bere eginkizunean.

8.- Eraiki nahi dugun Haur Eskola honetan, hezitzailea ez da informazio-transmititzaile huts eta bakarra, ezta ikasten ari denak egiten dituen aurrerapenen lekuko mutu ere.

Hezitzailea gizartearen eta kulturaren erreferente bat da (gizarte, kultura eta haurraren arteko bitartekari dela esango dute batzuek), errealitate horri kultur bizitza emango diona da. Hezitzaileak haurren maila eta ahalbideetara egokituko ditu elementu kultural eta sozialak; bere inguruko gizartean bizi eta integratzeko behar dituzten tresnak ezagutu eta menperatzeko laguntza ematen saiatuko da (eskolaren funtzio sozializatzailea da), eta aldi berean gizabanakoen garapen osoa eragin eta bultzatuko du (hau eskolaren funtzio indibidualizatzaile edo sortzailea da).

Hezitzailearen egitekoa egoerak, estimuluak eta exijentzia eskaintzea da batez ere, horrela haur bakoitzak bere nortasuna, buru-egiturak eta jakintza garatu ditzan; une egokian banakako edo taldeko laguntza eskaintzea ere hezitzailearen egitekoa da. Bestalde, testuingurua prestatu behar du (espazioak, denborak, erritmoak, ekintzak), berak haurrari eskainiko dizkion ezagupen eta jarduerek esangura osoa izan dezaten testuinguru horretan.

Hots, hezitzaileak ondo zaindu behar ditu ikaskuntza-baldintzak, guztiek ezagutu ahal izateko moduko buru-espazioak sortuz eta berorietan lengoaia ezagun eta afektiboa erabiliz, afektaturik senti daitezen. Eta zurearen eta nirearen artean zubiak eraiki behar ditu, zu eta ni artean, gu bat eraiki, eremu konpartitu eta esanguratsuak, non gauzak ikasteko eta aurkitzeko komunikazioa oinarri eta laguntza baita.

9.- Haur Hezkuntzan, **talde hezitzailea** funtsezko zutabea da. Haur Eskolako pertsonal osoak eraikitzen du **hezkuntza-proiektu komuna**, eta horretan guztiek esku hartzen duten, iritzi eta estiloak bateratuz, eguneroko zereginari koherentzia eta zentzua emanez.

Eguneroko bizitzan denak du bere garrantzia eta Eskolako pertsona guztiek, heldu eta haurrek, esku hartzen dute bertan. Ondorioz, ikastetxeko pertsonal osoa dago hezkuntza-proiektuan eta jardueran sartuta.

Langileen motibazioaren gakoetako bat inplikaturik eta informaturik sentitzean datza, beraien lanak funtzio hezitzailea duela eta hezkuntza-proiektuaren parte dela jakitean. Informazioa —Eskola barneko nahiz kanpokoa— zabaltzea koordinatzaileei dagokien ardura da. Informazio eta koordinazio-lan honek bakarrik —bakoitzaren funtzioa proiektuaren arabera zehazten lagunduz, eta proiektua guztien ekarpenez aberastuz— sortu ahal izango du lantalde bateratu eta koherentea, Eskolari kalitatea emango diona.

Lan horretan taldea ez da ezerezetik abiatuko. Praktikari

buruzko gogoeta egin behar du, eta horretarako nork bere esperientzia —pertsonal edo taldekoa—, eskolaren kokalekua, kultur eta gizarte-testuingurua, haurren premiak... hau da, talde hezitzaileak ezagutzen eta beti aztergai dituen elementuak erabil ditzake erreferentzi gisa eta abiapuntutzat. Printzipio teorikoen eta praktikaren, edo gurarien eta errealitatearen arteko tirabirak, hezitzaileak bere eguneroko lanarekin egiten duen kontrasteak, norbanakoaren planteamenduen eta taldearen planteamenduen arteko kontrasteak —azken finean, gatazka kognitibo eta soziokognitiboak— proiektu komuna prestatzeko lantaldearen hausnarketa eta erabakihartzea eragin ditzake. Izaera dinamikoa eta orientatzailea duen proiektua da, oso nekez objektiba daitezkeen alderdi horiek (egunero berez eta ezustean sortzen dena, inpregnazio bidezko ikaskuntzak) ahazten ez dituena, eta haurren bizitzan ematen diren egoera espontaneo asko aprobetxatzeko behar hainbat espazio uzten duena.

10.- Azkenik, **hezitzailea bere bizitza eta ezagupen propioen eraikitzaile ere bada;** bera ere izaki aktiboa da, errealitate zehatzarekin elkarrekintzan eta kontrastean bere ideia eta bizipenak etengabe eraikitzen eta lantzen dituena. Hezitzailea aditua da, baina ikasle ere bai, etengabe ari baita bere ideiak eta ekimenak berrikusten eta errealitate zehatzarekin kontrastatzen.

Izan ere, esperientzia pertsonal eta profesionalaren ondorioz, hezitzaileak hainbat eskema —esplizitu eta inplizituak— bereganatzen ditu haurraren izaera eta funtzionamenduari buruz, heziketaren izaera eta bete behar dituen funtzioei buruz, irakatsi behar denaz eta elkarrekintzan dituen ikasleek garatu behar dituzten ekintzei buruz eta beraiekin lan egiteko metodologiarik egokienaz.

Baina bere bizitza pertsonala, bere bizitza afektiboa, eguneroko errealitatea, haurrekiko —guztiak ezberdin diren haur horiekiko— elkarbizitza, eskola barruko eta kanpoko bizitzaren arteko kontrastea, eskola-praktikarekiko satisfakziorik eza, heziketa-taldean planteaturiko proiektua bera: gauza horiek guztiak kontrastaketarako balio dute, norberaren planteamenduen egokitasun edo desegokitasuna aurkitzeko. Gatazka kognitiboa da, baita afektu, sentimendu eta jarreren gatazka eta tirabira ere, hezitzaile, ikasle nahiz irakasle-taldeari aurkezten zaiena, eta argitu eta konpondu behar dena aurrera jarraitzeko. Hori konpontzeko aurrez zeuzkan eskemak errealitate zehatzera etengabe moldatu beharko ditu, eta eskema berriak lanean segitzeko eta heziketari eta interbentzio-moduei buruzko ideiak birplanteatzeko abiapuntu gertatuko zaizkio.

Guztiok dakigu zein onuragarri den bizitzaren aurrean erne dauden pertsona horiekin harremanetan egotea, beren buru ireki eta malguaz beti ikasten ari baitira, beren bateratzea landuz joaten dira eta beraiengandik ikasteko aukera ematen dute beti.



*Virgen de los Dolores Haur eskola.- Aguilas*

# EGUNEROKO BIZITZA: Haurren heziketarako baliapide metodologikoa.

*Paz POSSE HERNANZ*
*Antonio MARTINEZ SANCHEZ*
*Amalia GONZALEZ GALVEZ*
*Maribel ACOSTA*
*Lourdes ACALE*

PATRONATO MUNICIPAL DE EDUCACIÓN INFANTIL DE GRANADA

*Granadako Udalako Haur Hezkuntzako Udal Patronatoan diharduen profesional talde bat gara. 1981etik hona, talde horren eginkizuna patronatoa osatzen duten lau eskoletan (Arlequin, Belen, Duende eta Luna) 0-6 urteko haurrak zaindu eta heztea izan da.*

*Eskola hauetako bakoitza Granadako auzo batean dago eta ehun bat haurrez osatzen da. Eskola bakoitzean hamaika langile daude (bi sukaldekoak) eta horiexek osatzen dute eskola bakoitzeko talde pedagogikoa eta taxutzen eta gauzatzen dute hezkuntza-egitasmoa.*

*Txosten honen bidez eskolako bizitza nola ulertzen dugun eta nolako irtenbideak ikusten ditugun azaltzen ahaleginduko gara.*

*Lehenengo eta behin saiatuko gara eguneroko bizimodua eta alderdi esanguratsuenak definitzen eta, orobat, praktikan jartzeko orduan kontuan hartu behar diren osagaiak zehazten.*
*Hauexek dira horietako batzuk:*

*1. Sarrerak eta irteerak.*
*2. Ekitaldiak eta atsedenak.*
*3. Norbere buruaren zainketa.*
*4. Elikadura.*

*Amaitzeko, oraintsu atera ditugun ondorio batzuk azalduko ditugu, oraindik ere eskoletako lantaldeetan aztergai, eztabaidagai eta esperimentazio-aldian jarraitzen dutela jakinik.*

## ZER DA EGUNEROKO BIZIMODUA?

Eguneroko bizimodua gertakari segida bat da. Bertan hainbat ekintza biltzen dira, haurren premiak asetzeko asmoarekin gertatzen direnak, eskolara heltzen direnetik alde egiten duten arte.

Eguneroko bizimodua eskola antolatzen lagunduko digun ardatz nagusia da eta beraren inguruan atonduko ditugu gainerako proposamen metodologikoak eta hezkuntza estrategiak. Eguneroko bizimoduko egoerak oso garrantzitsuak dira, zeren:

1. Haurren bizi-premiak asetzeko aukera ematen duten egoerak dira, euren bizitzarekin zerikusia dutenak, euren interesekoak eta, hortaz, oso esanguratsuak. Gainera, berez daukate funtzionaltasuna, eta ez dira artifizialki antolatu behar.
2. Ondo definituta eta sistematizatuta daude, denboran eta jardunean mugatuta eta, gainera, nolabaiteko errito izaera dute. Ondo bereizten dira eta haurrei gertatuko dena aurrez antzemateko aukera ematen die, horrela segurtasuna eta konfidantza lortuz.
3. Haur guztien parte hartze aktiboa ahalbidetzen duten egintzak dira (haur bakoitza bere gaitasunaren arabera aritzen da), garapen globala sustatzen dutenak; elkarlanerako eta kooperaziorako jokabideak bultzatzen dituztenak; eta gainera, helburuetan finkaturiko ikaskuntzak lantzeko balio dutenak.
4. Komunitatearen ezaguera soziokulturalak ezagutu eta konpartitzeko aukera ematen dute eta, aldi berean, inguruko errealitateari buruzko ezaguerak eskaintzen dizkie haurrei.
5. Haurren bizi-premiak asetzeko derrigorrezkoak diren egintza horiek guztiak heziketa asmo argi batekin aprobetxatzen ditugu helduok. Eta badakigu, emaitza onak eta gogokoak lortzea erronka

bat dela txikientzat, aurrerapausu bat haien garapen eta hazkundean.

Horregatik guztiagatik, eguneroko bizimodua da ardatz metodologiko nagusia. Bere inguruan antolatuko ditugu beste estrategia guztiak -haurren eskolako zereginak egiteko taxutzen direnak- giro alai eta segurua sortuz.

Horri guztiari erantzuteko, eskolako bizimodua antolatzerakoan hainbat gauza eduki behar ditugu kontuan:

1. Denbora era erregular eta orekatuan antolatu behar dugu beharrizanak atseginez eta gogara betetzeko. Baina aldi berean, haur bakoitzaren egoera eta une ebolutiboari egokituko gatzaizkio eta berrikuntzetarako lekua utziko dugu.
2. Espazio eta materialak haurren jardun autonomoa bultzatzeko moduan antolatuko ditugu, pixkanaka euren beharrizanak euren kontura konpontzeko gai izan daitezen, bai banaka eta bai taldeka.
3. Eguneroko bizimoduarekin lotuta bultzatu nahi ditugun ikaskuntzak aurrez programatuko ditugu, prozesuak derrigortu gabe baina hazkundeari laguntza eta pizgarriak eskainiz. Haurrek egintza horiek gogara egiten badituzte, euren garapena bultzatzeko eta ingurune sozial eta fisikoarekin harreman egokiak finkatzeko modua izango dira.


LUNA Haur Eskola, Granada

Ikusten duzuen bezala, eguneroko bizimoduak egoera eta alderdi asko eta asko hartzen ditu. Guk horietako batzuetan jarriko dugu arreta; egun bateko gertaeretan biltzen diren egintzak azalduko ditugu baina epe luzeko ikuspegia (ikasturtea esate baterako) ere kontuan izanda, izan ere, denbora aurrera joan ahala, eguneroko gertaerek hartzen duten konplexutasun maila oso esanguratsua baita: gurasoekin banatzean bizi duten egokipen alditik hasi eta eskolarekin topo egiten duten egunera edo basora eginiko lehen irteerak antolatu arte edo kanpoan urarekin jolasak eta ikasturte amaierako jaira arte ibilbide luzea dago, eskolako haur guztiek egin behar izaten duten ibilbidea.

Gai honen ardatz nagusiak ikusi ondoren, orain eskolako bizimodua antolatzeko erabili ditugun egintzak zehatzmehatz aurkeztuko ditugu:

GERTAERAK: **ETORRERA/IRTEERA**
**EKITALDIAK ETA ATSEDENALDIAK**
**JATORDUAK**
**NORBERE BURUAREN ZAINKETA**

## * ETORRERAK ETA IRTEERAK

Haurrarentzat eskolara etortzeak bere famili giroaz banatzea eta irakaslearekin, lagunekin, espazio berriekin topo egitea dakar. Gauza bera gertatzen zaio familiari. Bai txikiek eta bai senideek, batzuetan, zalantzaz beterik bizi dute egoera hori, batez ere lehenengo egunetan. Apurka-apurka, eguneroko harreman zuzenaren eta hainbat solasaldiren bidez, eta beste haurrak ikusten dituztela taldeko bizitzaren partaide sentituko dira. Handiek (4-5 urtekoek) lasaitasun handiagoz bizi dute eguneroko banaketa hau, baina interes eta intentsitate berarekin.

Honegatik guztiagatik, banaka egingo diegu harrera. Familia bakoitzarengana joango gara, elkartzeagatik alaitasuna erakutsiz, haurra bertan dagoela nabaritzen dugula ikusaraziz, haur bakoitzari keinuak eginez eta eskolatik kanpo egin duten egotaldiari buruzko jakinahia agertuz.

Orobat, gurasoei ere harrera ona egingo diegu eta agur bana eskaini. Denak sartuko dira zuzenean, seme-alabarekin, gelaraino, irakaslearekin, lagunekin eta beste haurren familiekin solasalditxo bat egiteko. Horrela lasaiago eta konfidantza handiagoarekin uzten dute euren haurra.

Agurtzeko ordua heldu baino lehenago, haurraren bila etorriko den pertsonarekin batzeko prestatuko ditugu, presak eta bat bateko aldaketak alde batera utziz. Materiala batzeak eta etxera eraman behar dituzten gauzak prestatzeak eszenatoki aldaketara ohitzen lagunduko die. Era berean, gurasoek ere, gelara sartzerakoan, adeitasuna antzeman behar dute, badakitela eguneko getaeren berri. Jakinaren gainean egon daitezen, ate ondoan taula batean eguneko egintzen zerrenda jarriko dugu. Horrela, gelara sartu aurretik badakite haurrek zer egin duten. Dena dela, orri hori jarri arren, banan-banan hartu eta hitzegiteari ez diogu utziko.

Eguneroko bizimoduko bi une horietan (etorreran eta irteeran) haurrek giro aldaketa bat sumatzen dutenez, komenigarria izango da etxearen eta eskolaren arteko loturak, bi



ingurunеen arteko zubiak eraikitzea. Hargatik, gauzen, jokoen eta materialen joan-etorria bultzatuko dugu, bai eskolatik etxera bai etxetik eskolara.

Gure eginkizuna une atseginak, alaiak, berritsuak, komunikatiboak eta heziketarako baliagarriak lortzea izango da.

## * EKITALDIAK ETA ATSEDENALDIAK

Programaturiko ekintzen helburua haurrei euren ezaguera eta ikaskuntza gauzatzen joateko egintzak prestatzea da. Baina, aldi berean, egintza horiek zera ere eragin behar dute: gaitasunak sustatzea, esplorazioa, esperimentazioa, ukimena, jostaketa, eta oinarrizko beharrizanak asetzea, hala nola, mugimendua, inguruarekiko elkarrekintza, beste haurrekiko elkarrekintza... baina beti jolasa izango da jardun nagusia. Egintza horietan guztietan, asmatzeak edo gauzak ondo egiteak hutsegiteak besteko garrantzia dauka.

Haurrak ekin eta ekin ari direla, pertsona helduak eginkizun garrantzitsua dauka. Haurra bere ezaguerak eta ikaskuntzak eraikitzeko gai dela eta horren bultzagilea egintza dela jakinik, pertsona heldua da egintza hori eragin behar duena, prozesuan inplikatuz, eta haurrak behar dituen baliapideak eskainiz. Haurrek egiten dutena begirunez behatuko du, behar duten laguntza eskainiz. Batzuetan adorea emateko hitz bat izango da, beste batzuetan egiten ari dena zalantzan jartzea, edo eguneroko zereginek jartzen dituzten oztopoei irtenbideak aurkitzen laguntzea. Irakasleak ez du haurren zeregina ordezkatu behar, lagundu eta bakoitzari bere irtenbideak aurkitzeko bidea erakutsi baino. Pertsona heldua beti ondoan izateak segurtasuna eta konfidantza giroa eskaintzen die; horrela badakite ez daudela bakarrik eta behar dutenean helduarengana jo dezaketela.

Eskainiko diegun egintza-sortak baldintza horietan sartu behar du, haurrei norbere kabuz jarduteko eta denek parte hartzeko aukera emanez. Zainketarako, begirunea izateko eta taldean lan egiteko jarrerak bultzatuko ditugu eta denon zeregina izango da materialak, lekuak eta abar zaintzea.

Guretzat garrantzitsua da haur bakoitzak bere denbora behar duela ohartzea: pentsatzeko, jolasteko, desagertzeko, lur jota geratzeko, barre egiteko... denbora. Hargatik, planifikatzeko orduan taldea kontuan hartuko dugu baina baita taldeko partaide bakoitza ere.

Hainbat baliapide eskainiko dizkiegu, esate baterako, batzarra edo biribilean esertzea, ekintzak eta jolas egiteko txokoak, tailerrak, irteerak... Baliapide horiek eguneroko bizimoduan txertatuta egon behar dute eta euren esperientzia aberastuko duten interesei, trebetasunei eta ikaskuntzei erantzun behar diete. Eskaintza zabal bat egin behar zaie, eurek nahi dutena hautatzeko aukera izan dezaten.

Baliapide horiek taldearen jardunak sorturiko beharrizanei erantzun diezaieten ahaleginduko gara: esate baterako, tailer bat antola daiteke haur txikienentzako jostailuak egiteko; batzar bat egin daiteke beste eskola bateko lagunei gutun bat bidaltzeko; medikuetara jolasteko txoko bat aton dezakegu, medikua den guraso baten laguntzaz eta bere benetako materialaz; tailerretan errepidea eta gasolindegia eraiki dezakegu ibiligailuen txokoa egiteko; erosketak egitera joan gaitezke eskolako sukaldera gelako sukaldetxoa hornitzeko... Eta horrelako beste hainbat egin ditzakegu taldeko bizimoduan sortzen diren arazoei aurre egiteko, baina ahaleginduko gara irtenbideak eurek bila ditzaten, adituen laguntzaz baina beraiek buru direla.

## * ATSEDENA

Guretzat atsedena gizakiaren beharrizan biologikoa da. Garrantzitsua da konturatzea eskolan gurekin dauden pertsonatxo horiek atsedena hartzeko, ezer ez egiteko, dena bertan behera uzteko beharra dutela. Beraz, behar horiek betetzeko aukera emango dieten egoerak prestatuko ditugu. Ekitaldiak eta atsedenaldiak txandaka egiten ahaleginduko gara, beti haur bakoitzaren erritmoa eta beharrak aintzat hartuta. Horretarako, txoko lasai bat atonduko dugu, bakardadean egoteko modukoa. Kuxin batzuk, alfonbra bat, ipuin batzuk jarriko ditugu, iskanbilatik urrun dagoen leku batean, behar dutenean hara joan ahal izateko. Guk onartu egingo dugu.

Eskolako haur guztiek, lau urte bete arte, eguneroko bizimodua deritzonaren barruan, loaldi bat dute bazkalostean, bakoitzak bere gelan. Bazkari ostean, garbiketak egin ondoren, aldatu egingo dugu giroa denon laguntzaz. Horretarako, atseden giroa sortuko duten osagaiak sartuko ditugu, lo aurreko errituala bihurtuko direnak: pertsianak jaitsi, musika lasaia jarri, ahotsaren tonua jaitsi eta mugimenduak moteldu, oinetakoak kendu, koltxoiak lurreratu, maindireak ipini, pan-

pina eta txupetea hartu eta sssss... lo. Pixkana-pixkanaka jardun guztiak moteldu egiten dira eta ametsen munduak hartzen du haurren gogoa, bakoitza bere panpinaren edo lagun minaren ondoan dagoela.

Haurrek, borondatez, loaren eskuetan konfidantzaz geratzeko,segurtasun afektiboa behar dute. Helduaren eginkizuna da segurtasun hori ematea, noski. Bakoitzaren lokartzeko erritoak, ohiturak eta osagaiak aintzat hartzen direla ikusi behar du haurrak.

4-6 urteko taldeetan ez da biaoa eguneroko bizimoduko egintzatzat jotzen, beraz, bazkalostean egintza lasai eta bare bat proposatuko diegu, atsedenari leku egiteko: ipuin bat, musika entzutea... atseden hartzeko modu ona izan daitezke.

## * JATORDUAK

Elikadura ezinbesteko gaia da garapen prozesuan, eragin afektiboak, kognitiboak, harremanen arlokoak, biologikoak eta abar dituena. Hala, bada, jatordua egintza egokia iruditzen zaigu ikaskuntzarako egoerak eragiteko. Elikadura, horrela ulertuz gero, ez da jate hutsa. Behar biologiko batzuk asetzea baino askoz ere gozoagoa eta hezitzaileagoa da. Harremanak sortzen dituen egintza sozial bat da; jaiotzatik bertatik beste bat(zu)ekin batera egiten dena. Eta apurka-apurka, autonomia sendotu ahala, indartu egiten da haurraren protagonismoa.

Egintza aproposa da helduaren eta haurraren artean komunikazioa sortzeko; helduen jokabideak erabateko eragina izango du haurren jokabideetan.

Euren garapenean hartu behar duten protagonismoak (geuk bultzatuko dugunak) zentzu berezia hartzen du gai honetan. Jale eta ikusle huts izan beharrean, hasieratik partaide aktiboak izateak euren autonomia garatzeko aukera emango die; gero eta trebetasun konplexuagoez jabetuko dira eta euren buruan konfidantza izaten hasiko dira. Kontua gai diren pertsonatzat hartzea da, apurka-apurka euren kabuz egiten ikasiko dituzten alderdi eta gaitasunetan ez ordezkatzea.

Oinarrizko behar hau asetzeko hartzen dugun une bakoitza gertaera garrantzitsua da eskolako eguneroko bizimoduan: gosaria, bazkaria, askaria... erreferentzia puntu bezala hartzen dira, horien inguruan haurren egotaldia, denbora, antolatu eta sekuentziatzeko. Taldean egoteko une horiek garrantzitsuak dira haurrentzat eta helduak baliatu egin behar du horietaz zenbait ezaguera eta informazio sistematizatzeko, kontzeptualizatzeko. Eta denen zeregina da une horietaz baliatzeko behar den azpiegitura prestatzea, bakoitzak bere ahalmenen eta gaitasunen arabera lagunduko duen arren. Talde bakoitzak txoko bat egingo du bere gelan. Sukaldera joango dira janari bila pertsona helduaren laguntzaz. Sukaldariek jateko zer dagoen esango diete. Guztion artean mahaia ipini, adurzapiak hartu, platerak banatu, mahai-tresnak eta zapiak jarri eta bakoitzak noren ondoan jango duen erabakiko dugu. Gero, pertsona helduek mahaia zerbitzatuko dute, une hori denekin eta bakoitzarekin hitzegiteko aprobetxatuz. Bazkalordua atsegina, lasaia, presarik gabea izan



LUNA Haur Eskola, Granada

dadin ahaleginduko gara. Amaitu ondoren, denon artean mahaia batu eta aurpegia eta eskuak garbitzera joango dira. Handienek hortzak ere garbituko dituzte.

## * NORBERE BURUAREN ZAINKETA

Norbere gorputzaren higieneari dagokionez, garbi eta eroso sentitzea eta egotea oinarrizko premia bat da haurrengan ere, euren osasuna eta ongizatea kontuan hartuta. Oso garrantzitsua iruditzen zaigu gai honetan esperientzia onuragarriak izatea, norbere gorputzaren onarpena eta autoestima bezalako arloei eragiten baitie higieneak. Hargatik, gorputzaren higienea dela eta egiten diren egintzek eragin afektibo handia izaten dute. Hasieran, irakasleon ardura da beharrizan horiek betetzea, baina, poliki-poliki, horretararako baldintza egokiak sortuz, eurei eman behar diegu protagonismoa.

Pixoihala aldatzea arreta berezia eta banakakoa eskatzen duen egintza da. Haurra garbi uztea baino gehiago da. Aldaketa bakoitzarekin laztanak, begiradak, keinuak... eskaintzen eta hartzen baititugu eta horien bidez une hori era onuragarria batean biziarazten diogu haurrari. Helduak eutsi egiten diola sentitzen du haurrak. Gurasoek emango dute haur bakoitzaren ekipajea eta bainugelan utziko dugu, haur bakoitzaren apalean.



Haurraren eboluzioaren arabera, eta gurasoekin harremanetan gaudela, apurka-apurka esfintereak kontrolatzen hasteko gonbitea egingo diegu. Gogoa dutenean pixontzietan esertzeko aukera dutela esango diegu. Beste lagunekin batera esertzea bera ezer egiten duen ala ez alde batera utzita garrantzitsua dela adieraziko diegu. Eskaintza hau egunero egingo dugu, nahiak eta erritmoak aintzat hartuz, giro alai eta atsegin batean, begirunez jokatzen dugula ikus dezaten, presarik gabe, eskakizun, haserre eta txantajerik gabe. Horrela, esfintereen kontrola norberaren garaipen bezala hartzen da, eta hori onuragarria da haurraren garapen prozesuan.

Jan ondoren eta zikinkeria dakarten beste egintza batzuen ondoren eskuak eta aurpegia garbitzeak higienea eta norbere burua zaintzeko ohitura sortzen du eta horrek eragin zuzena dauka osasunean; orobat, higieneak denetariko esperientziak, esperientzia aberatsak, eskaintzen ditu uraren inguruan, elementu horrek erakarpen eta gozamen berezia eragiten baitie adin guztietako haurrei. Bainugela ikasgelari atxekita dago. Kontuan hartzeko lekua da, haurren beharrizan eta egintzetarako berariaz prestatuta baitago. Nahi dutenean sartzen dira. Ispilu handiak dauzkate, haurren neurrira jarrita, euren burua eta besteena ikusteko. Bakoitzak bere eskuoihala eta edontzia dauka ikur batekin markatuta. Pertsona helduaren ardura izango da leku horretan behar den guztia prest edukitzea eta bertan egoteko arauak gogoratzea. Baina, aldi berean haurrek ere espazioaren eta materialen garbitasunean eta zainketan parte hartzea bultzatuko dugu.

Norbere gorputza garbi mantentzen ezezik, apurka-apurka, norbere burua zaintzen eta babesten ere ikasi behar dute. Arriskua sahiesten eta norbere burua babesten erakutsi behar zaie, informazio eta jokabide onuragarrien bidez.

## * ONDORIOAK

Azaldu dugun guztiagatik, eta ondorio gisa, zera esango dugu, eguneroko bizimodua haurren heziketarako planteamenduak ondoen jasotzen dituen baliapidea dela, zeren:

- Jardun egituratzailea eragiten du, ikastea haurren bizitzan erroturiko eginkizun jostagarri bihurtuz, baldin eta pertsona helduak beharrizan horiek betetzeko helburu hezitzailez janzten baditu.
- Norbere autonomiaren garapena sustatzen du, bai funtzionamenduaren aldetik eta bai egintzaren aldetik, prozesu hau garapenaren oinarrietako bat bihurtzen delarik. Aldi berean, jardun horrek pertsona helduen munduan sartzen laguntzen die, lasaitasunez, eta haurren eta helduen interesetan oinarrituta.
- Norbanakoarekiko begirunea bultzatzen du, taldea gizabanako askoren baturatzat hartuz, bakoitzaren erritmoa errespetatuz eta haur bakoitzaren berezitasunak aintzat hartuz. Eguneroko bizimoduak mekanismo malguak sortzea ahalbidetzen du, berezitasunak jaso eta errespetatzen dituzten mekanismoak.
- Ekintzak antolatzeko orduan aniztasuna eta aberastasuna eskaintzen ditu, bakoitzak bere gogoko ekintza aurki dezakeelarik, lan egiteko hainbat modu eta baliapide eskaintzen baititu.
- Profesionaloi ikerketarako, eztabaidarako eta azterketarako bide agortezina eskaintzen digu, gure eginkizunetan aurrera egiteko. Eta dudarik gabe, ez dugu gaia agortu, gehiago sakontzeko asmoa baitugu.



*LUNA Haur Eskola, Granada*

# LOALDIKO AZTURAK HAUR ESKOLAN

*Natalia UNICA ROLDAN*
*Lorenzo Antº HERNANDEZ PALLARES*

AGUILAS HERRIKO "VIRGEN DE LOS DOLORES" HAUR ESKOLA.

*Haur Eskola ikastetxe integraltzat hartu behar dugu haurren garapeneko alderdi guztiak lantzen baititu: fisikoak, sozialak, adimenekoak, afektiboak...*

*Beraz, umeekin egin nahi ditugun ekintza eta egitarau guztiak haur eskolaren ikuspegi integral eta global horren barruan taxutu behar ditugu, indarrak, batez ere, eguneroko bizimoduko gauza txiki eta ohikoetarantz bideratuz, euren gaitasunak ahalik eta ondoen gara ditzaten; horixe da gure asmoa.*

*Batzuetan oso ekintza ikusgarri eta puntualak planifikatzeko joera izaten dugu. Horiek ere beharrezkoak izaten dira baina ez dira ohikoak deritzegunen kaltetan antolatu behar, azken hauek egunero egin behar izaten baititugu. Izan ere ohikotasun horregatik, batzuetan ahaztu egiten zaigu hobetu ahal izateko komenigarria dela ohiko ekintzak planifikatu eta ebaluatzea. Norbere garbiketari, bazkariari, loaldiari... eta horrelako alderdiei buruz ari gara.*
*Gure taldeak (Aguilas herriko Virgen de los Dolores Haur Eskola) gai hauek sakontasunez aztertzeko asmoa dauka, edukinagatik, materialagatik edo ikuspuntuagatik ikusgarriagoak diren beste batzuek ahaztu gabe.*

*Lehenengo hartu dugun gaia loaldia izan da. Egia esan biao edo siesta ordua besterik ez dugu jorratu, horixe baita gure lanbidea kontuan hartuta azter dezakegun loaldi bakarra.*

## ESPERIENTZIA:

### 1. Nola sortzen da?

Ikastetxera datozen gurasoekin egiten ditugun elkarrizketetan, loaldiaren atalera heltzen ginenean hainbat gauzataz ohartzen ginen:

* Askok euren seme-alabak *oso onak* zirela esaten zuten, lo ondo egiten zutelako, eta beste askok *oso txarrak* zirela, lorik egiten ez zutelako.
* Guraso batzuk estutu egiten ziren arazo horregatik baina kasu larri batzuk kenduta ez zuten espezialistengana jotzen.
* Eskolak erdi ahaztuta zeukan biao orduko loaldiaren gaia.

Hori guztia ikusita inkesta bat egitea erabaki genuen. Inkesta hori eskolako psikologoak eta pedagogia arduradunak eginiko elkarrizketa batzuen bidez gauzatu zen. Horrela konturatu ginen gurasoek informazio falta handia zutela, loaldiko ohituretan arazoren bat sortzen zenean noraezean ibiltzen zirela eta, azkenik, haiengandik ateratako datuak beste herrialde batzuetan argitaraturiko bibliografian agertzen zirenen modukoak zirela.

Eta datuak ikusita, hezkuntza talde osoak gogoeta egiteari ekin genion. Ohartu ginen beste aztura batzuk gizarteko moda eta ohiturekin batera aldatu direla eta kuestionatu egin dela aztura eta ohitura horien inguruko hezkuntza irizpideen egokitasuna. Loaldia, berriz, ez da aldatu eta ez da kuestionatu. Aitzitik, gurasoek errepikatu egiten dituzte zenbait eredu familiar eta sozial, *horrelaxe egin delako beti*, besterik gabe.

## 2. Zein da gure asmoa?

* Giro lasaia sortzea.

* Lo egitea gauza atsegina bihurtzea denentzat.

* Lo egiteko ohikoa ez den leku batean segurtasuna sentiaraztea.

* Lo egiteko orduan autonomia gara dezatela (loak hartu aurretik, ondoren eta bitartean).

* Loaldi aurreko uneetan jarrera lasaia transmititzea.

* Biaoetan haurrek aldamenean izaten duten pertsona heldua jabe dadila segurtasuna emateko modurik onena bera dela.

## 3. Nola diseinatu dugu?

Funtsezko hiru unetan behatu ditugu haurrak eta horiexen arabera taxutu ditugu ekintzak. Hauexek dira hiru uneok:

**- Lo egin aurretik.**

**- Lo daudela.**

**- Lo egin ondoren.**

*a)* *Lo egin aurretik:*

Denbora sekuentzia bati jarraiki egiten diren ekintzen artean bazkalondokoak daude: haurrak komunera joaten dira hortzak garbitu eta komunekoak egitera. Erritmo horrek atsedenerako bidea ematen du eta logurari ateak irekitzen dizkio.

Logeletan giroa eta espazioaren zein materialen antolamendua txukuntzen ahalegindu gara. Logelan sartzen direnean bakoitza bere apalera hurbiltzen da, bere poltsa atera, poltsatik gaineko maindirea edo estalkia atera eta ohe barrenean uzten du. Oinetakoak kendu (nagusiek euren kontura, besteek laguntzarekin) eta oinetakoentzako apal batzuetan jartzen dituzte, bakoitzak bere anagrama dagoen lekuan. Gero, ohera itzuli eta estalkiarekin ondo estaltzen ahalegintzen dira. Prozesu mailakatua da hau eta oker eginiko gauzek eta hutsegiteek euren mundua eraikitzeko eta antolatzeko bidea ematen die.

Eta orain, jolas gogorrak alde batera utzita, solasaldi lasai bat haurrak bare daitezen.

Haur guztiak oheratuta daudenean, hezitzaileak lasaitasuna ematen duen musika bat jarriko du (logura sortzen duena, amaren sabelean zeudeneko bihotz taupaden erritmoa gogorarazten duena) eta tarte bat entzuten utziko die. Une egokia pertsianak jaitsi eta logela ilunetan uzteko. Jarraian, musikaren bolumena jaitsi eta ipuina kontatzen hasiko gara (ia beti ipuin berbera eskatzen dute, susmatuko zenuten bezala). Ipuinak mundu sinbolikora hurbiltzen ditu, ametsen inkontzientera, lokartu aurreko egoera zerebraletara.




Virgen de los Dolores Herri Eskola, Aguilas.



Virgen de Los Dolores Herri Eskola. Aguilas

Ipuina kontatu eta ... lo egitera! Hona heltzen garenerako gehienak lo egoten dira, baina batzuetan izaten da haurren bat gure presentzia fisikoa, gorputza sentitzea behar duena... ezaguna egiten zaizue, e!? Orduan, hurbildu eta lasaitzen lagunduko diogu masaje baten bidez, laztan batzuen bidez, gure arnasaren erritmoa egokituz edo, besterik gabe, ondoan egonez. Loa galerazten dion estura deskargatzeko unea da. Denak lokartzea lortu dugunean, badugu zeregina:

*b)* *Lo daudela, ondoan egotea:*

Lo dauden bitartea irakurtzeko, oharrak idazteko... aprobetxatuko dugu. Baina oinarri-oinarrizkoena segurtasuna eta lasaitasuna emateko ardura izatea da; funtsezkoa iruditzen zaigu lo egitea bezalako jardun pertsonal batean, are gehiago haurra etxetik kanpora dagoela. Laguntzeko prest egon behar dugu, arreta jarriz, begiak irekita eta belarriak erne.

*c)* *Lo egin ondoren:*

Astiro-astiro pertsianak jaso eta apurka-apurka, *Esnatu, esnatu!* kantuarekin, itzartu egingo dira. Batzuk berehala esnatzen dira, beste batzuk nagiagoak dira. Betiko moduan aintzat hartuko dugu bakoitzaren erritmoa.

Poliki-poliki, bakoitzak bere erritmora, estalkiak gorde (laguntzarekin) eta poltsetan sartuko dituzte. Gero apaletara joan eta oinetakoak hartuko dituzte. Estalkiak bere lekuan utzi eta oinetakoak jantzi ondoren, gure gelarik bisitatuenera joango gara berriro: komunera.

## 4. Aurretiazko plangintza:

*a)* *Materiala:*

* Koltxoiak beti leku berean kokatuko ditugu. Behin edo behin umeren bat falta bada ere, jarri egingo dugu bere koltxoia, inor etzan ez arren; horrela, bakoitzak bere kokalekua zein den jakingo du.
* Apal batzuk prestatuko ditugu euren anagramekin oinetakoak utzi ditzaten.
* Poltsa bana prestatuko dugu, oihalezkoa eta handia (ogi-poltsen tankerakoa).
* Haur bakoitzak kasilero bana edukiko du, bere anagramarekin, poltsa gordetzeko.

*b)* *Lekua:*

Tenperatura, hezetasun eta erosotasunaren aldetik egoera onean egon behar du loaldiarako egokia izan dadin.

*c)* *Haurrak:*

* Beti bere taldearekin: haurren batek gelan senideren bat edo lagun minen bat badu, elkarren ondoan lo egiten utziko diegu.
* Beti toki berean lo egingo dute.
* Badakite atsedenerako ordua dela: lo egin nahi badute, badute aukera; eta nahi ez badute, arau bat besterik ez dute bete behar, inor ez asaldatzea.
* Komunean prestatzen dira lo egiteko: garbiketa, gorputza libratzea, eta abar.

*d)* *Hezitzailea:*

Hezitzailearen jarrera funtsezkoa da (betiko moduan). Lasai eta sosegatuta egon behar du segurtasuna transmititzeko eta adi haurrak loaldian izango dituen premiei aurre egiteko: etxetik loa samurtzeko ekartzen dituzten gauzak edo *euskarriak* (seguru aski, apurka-apurka berez baztertuko dituztenak), beldurrak, esturak... adi, beraz, lasaitasuna eragotziko dien edozein gauza antzemateko.

## 5) Gure ondorioak:

* Loaldia aztertzen jarraitu behar dugu, beste azturak ahaztu gabe.
* Funtsezkoa da gurasoekin komunikazio ona izatea, haurrarentzat loaldia aztura atsegina izan dadin.
* Eguneroko erritmoen arlo hau zehatz-mehatz planifikatzen jarraitzea.
* Hezitzailea funtsezko elementua da segurtasuna eta lasaitasuna lortzeko biaoetan.
* Haurren autonomia garatu behar da, bai *euskarriak* baztertzen joateko orduan eta bai loaldirako gauzak prestatzeko orduan (estalkia, oinetakoak).

# AURKIKUNTZEN JOKOA

*Tere MAJEN*
*Pepa ODENA*

INSTITUT MUNICIPAL D'EDUCACIÓ DE BARCELONA

*Egun, ume asko, batez ere hirigune handietan, luzaroan egoten dira etxetik kanpora. Jaio eta hilabete gutxira haurtzaindegira joaten dira eta han beste haur batzuk eta beste heldu batzuk ezagutzen dituzte.*

*Txikitxoen hezkuntzaz arduratzen garen adituak garenez zera galde diezaiokegu buruari: Eskolako giroak, kolektibitateak, eskaintzen al dizkio haurrari hazteko eta gaitasun guztiak armonikoki garatzeko behar dituen baliapideak, lasaitasuna eta segurtasuna?*

*Honako hau ere galde genezake:*

*Eta irakasleak? nola moldatzen dira 6, 10, 15 umeko taldeak gobernatzeko, haurraren eta helduaren arteko harremanak banakakoa izan behar duenean?*

*Umeei eta irakasleei buruzko bi galdera horiek jarraian aurkeztuko dugun esperientziarako bidea zabaltzen digute: AURKIKUNTZEN JOKOA.*

*Haur eskolako (0-3) hezitzaileek badakite zeinen gaitza den haurtxo batek, itxuraz behintzat, daukan pasibitatea animatzea edo ibiltari nekaezin batzuen joan-etorriei jarraitzea, geldi egon ezin diren haurtxoen atzetik ibiltzea, edo beti kuxkuxean, dena lurretik zehar barreiatzen edo bistako arrazoirik gabe ondokoari erasoka dabiltzanak zaintzea.*

*Elinor Goldschmied irakasleak (Londres) ondo ezagutzen ditu haurrak, haurren jakingura ase ezina eta mugitu beharra. Orobat, ondo ezagutzen ditu hezitzaileek haur talde bat gobernatzeko dauzkaten aukerak eta arazoak. Goldschmied andreak bi jolas mota landu ditu Haur eskolan bi helburu lortzeko: haurrei euren garapena gauzatzen laguntzea eta irakasleei euren hezkuntza eginkizuna erraztea.*

*Jolas hauek antzerakoak izaten dira helburuetan baina desberdinak eta bereziak haurren adinaren arabera. Esate baterako:*

*6-10 hilabeteko haurrentzat: ALTXORRAREN OTARREA*

*12-22 hilabeteko haurrentzat: JOLAS HEURISTIKOA*

*Esplorazioan eta gauzen bilaketan oinarritzen diren bi ekintza dira. Baina ikus dezagun nolako gauzak bilatzen diren: ez dira jostailu komertzialak, ez dira didaktikotzat jotzen diren materialak, eguneroko bizimoduan erabiltzen ditugun objektuak dira, edo birziklaturikoak, berez inongo joko-helbururik ez dutenak.*

*Ikus ditzagun orain zehaztasunez bi jolas horiek:*



Elorrioko Ikastola

ALTXORRAREN OTARREA

Zergatik otarrea? 6 hilabete inguru dituenean, haurrak eserita egoten ikasten du eta jarrera bertikal horrekin beste ikuspegi batetik ikusten ditu gauzak, beste mundu bat jartzen zaio aurrean, ez etzanda ikusten zuena bezalakoa. Aldi berean, inguruan dauzkan gauza guztiekiko jakinmina pizten zaio. Hilabete batzuetan, batetik-bestera mugitzen hasi arte, eskuen bidez lortu behar ditu objektuak. Eta horixe da otarrearen zeregina: gauza pila bat eskura jartzea.

Zumitzezko otarre bat behar dugu, zabala eta azala, gogorra, edonolako materialez gainezka: zura, arropa, beira, metala, goma, papera, objektu naturalak... edozerk erakar dezake haurren gogoa.

Zer egiten eta ikasten du haurrak horrela? gauzak hautatu eta mugitu, eutsi, behatu, ahoratu, zurrupatu, miazkatu, objektuei gora eta behera eragin, jo, objektuen mugimendua jarraitu... Bost zentzuak erabiltzen ditu, buruaz baliatzen da eta mugimenduak koordinatzen ditu: eskuak-begiak-ahoa, hankak eta oinak, hatzak...

Egintza batera bideratzen du arreta guztia eta sentsazioak bizi ditu, askotan atseginak zaizkionak.

Erabakitzen ikasten du.

Edonolako objektuak egoteak gauzen ezaugarri eta tasunak ezagutzeko bidea ematen du eta aldi berean haurren arteko harremana indartzen du.

Otarre baten inguruan eserita, bi edo hiru haur jar daitezke batera. Denek hartzen dute altxorren bat euren nortasun jaioberria aberasteko.

Eta hezitzailea? joko honetan erreferentzi puntua da haurrentzat. Hantxe behar dute, ondoan, segurtasuna emateko. Begiradak, irribarre atseginak, adorea eta onespena emateko hitzak dira helduak haurrarekin komunikatzeko dauzkan erak.

Gatozen orain JOLAS HEURISTIKORA:

Haurrak euren kabuz ibiltzen hasten direnean lauoinka zein oinez lehen urtearen bukaeran edo zertxobait beranduago, mugak murriztuta, interesen eremua handitu egiten da ikaragarri aurreko aldiaren aldean. Orain noranahi abia daitezke; bururatzen zaienaren bila abiatzen dira (lehen lortu ezin zuten horren bila, hain zuzen). Lortu dute. Orain objektua bera baino erakargarriagoa da objektuak beste gauzekin batera ikustea; objektuen konbinazioak zein ondorio dakartzan aztertzea.

Zein material erabiliko dugu, orduan, asmakuntzen jokoan? Ez diegu gauza bakoitzeko ale bana eskainiko otarrearekin egiten genuen bezala objektu mota bakoitzeko ale piloa baino. Esate baterako: kortxoak, metalezko tapak, zintak, katea zatiak, artilezko harilak, arropa esekitzeko matxardak, eta abar. Edukiontziak ere beharko ditugu objektuak nonbait jartzeko. Eta, azkenik, arropa poltsa batzuk ere izango ditugu; materiala ondo sailkatuta gordetzen lagunduko digute.



Eta zer egingo dute haurrek material honekin guztiarekin? funtsean, bi gauza:

Lehenengo, MIATU. Taldea buru-belarri sartzen da miaketa joakoan. Objektuak araurik gabe konbinatuz aurkikuntzak egiten dituzte: gauzak elkarren ondoan jarriz, bata bestearen barruan sartuz, gauzak eraz jarriz, batetik bestera eramanez, pilatuz, sartu eta atereaz, bete eta hustuz, harremanak, multzoak, antzekotasunak eta ezberdintasunak aurkituz...

Gero, BATU egiten dituzte lurrean barreiaturiko gauzak eta helduek eskainitako poltsetan sartzen dituzte, dena ondo sailkatuta, material bakoitza dagokion poltsan.

Zer ikasten duten? ba, mugikortasun globala lantzen, gauzei heltzen eta gauzak eraman eta nonbait ezartzen; aldi berean, pertsona helduak ekintza, objektu eta egoera bakoitzari jartzen dion izena edo hitza ikasten dute. Antolamenduaz atsegin hartzen eta sailkapenak ulertzen hasten dira. Lehen abstrakzio saioa egiten dute objektu homogeneo eta ugari baten ezaugarrien inguruan.

Asmakuntzen jokoa haurtzaindegiko ohiko jardunen osagarria izan daiteke eta hobe da 8-10 haurrez osaturiko taldeetan egitea, aldian aldian.

Hasieran zera galdetu dugu: kolektibitateak eskaintzen al dizkio haurrari gaitasun guztiak garatzeko behar dituen baliapideak?

Eta orain erantzun egingo dugu:

Aurkikuntza-jokoek BAI, eskaintzen dituzte aurrera egiteko elementuak. Haurrak beti daude aktibo eta aldarte onean lanpetuta, euren jardunean arreta guztia jarrita. Aurkikuntza-jokoek zabaldu eta aberastu egiten dute norbere sentimenen, mugimenduen, pentsamenduaren eta jokabideen eremua. Haurrek autonomia handiagoa lortzen dute eta bakoitzaren erritmoa errespetatu egiten dela ohartzen dira.

Zera ere galdetu dugu, tira, galdetu baino gehiago esan egin dugu, ez dela erraza haur eskolako hezitzailearentzat gizabanakoz osaturiko talde bat gobernatzea. Jolas hauen bidez, ordea, irakasleek baietz erantzun dezakete, euren eginkizuna errazteko modua dira eta.

Sortzen den baretasun eta patxada giroak lasaitu egiten ditu bai helduak eta bai haurrak; irakasleari taldea eta haur bakoitza behatzeko aukera ematen dio; interferentziarik eragin gabe parte har dezake.

Aurkikuntza-jokoak aspalditik ezagutzen dituzten eskolak hainbat gauzaz ohartu dira: haurrak lasaiago daudela, gauzak ordenatzeko gaitasun handiagoa duten taldeak direla, elkarbizitza hobea eta ikaskideekiko begirune handiagoa izaten dutela eta helduekin batera jarduteko prestuago egoten direla. Eta zera ere ikusten dute, irakasleek lasaiago bete dezaketela euren eginkizuna, hobeto ezagutzen dutela haur bakoitza eta bere hazkuntza eta begirune handiagoa dutela haurren erabakiekiko.

Eta honen ondoren, ez al zaizue iruditzen AURKIKUNTZA-JOKOAK haur eskolarako tresna egokiak direla?

Gu baiezkoan gaude, benetan.

# HAURRA ETA URA

Carme COLS I CLOTET

*Esperientzia honek urarekin haurraren heziketaren inguruko hainbat esparrutan nola josta gaitezkeen, nola esperimenta dezakegun erakusten du, eguneroko bizimoduko egoeretan (bere beharrizanei erantzuten dien eta familiaren, hiriaren eta eskolaren arteko harremana bultzatu eta sustatzen duten egoeretan) oinarrituta.*

*Eskola leku abantailatsua da kanpoko bizi-esperientziek bat egin dezaten, hau da, proposamen esanguratsu eta erakargarriak eskaintzeko, eta haurrek, gurasoek eta irakasleek identifikazio eta parte hartze bideak aurki ditzaten.*

*Gure inguruan dagoena ikusten eta irakurtzen jakitea sekula amaitzen ez den ikaskuntza da lanbide honetan, umearen mundu dinamikoan sartu eta interpretatzeko beharrezkoa den ikaskuntza. Ura, gure inguruan mila eratan agertzen den arren, luzaroan ikustezina izan da gure begientzat, eta ia-ia ez da aintzat hartu hezkuntzaren planteamenduan.*

*Txosten honetan aurkezten dugun proposamena ura heziketa bidetzat hartzen duena kontraesanak gainditzeko asmoarekin egin dugu, urari tratamendu berezia emanez. Proposamena umeen eskarien eta interesetan oinarrituta taxutu da, era iraunkor batean garatzeko umeak Haur Eskolan dauden bitartean, gurasoekin harreman zuzena dugula*

## * ZEIN DA GURE ABIAPUNTUA?

Ura, umeentzat hain erakargarria den arren, beti izan da gatazka eta kontraesanen iturburua. Batzuetan, debekatu egiten diegu ukitzea bera ere. Beste batzuetan, eguraldi ederra dagoenetan, esate baterako, mugarik gabe erabiltzen dugu.

Alde batetik, gelan askatxo batzuk dauzkagu haurrek erabiltzeko, baina bazkalaurrean eskuak garbitzeko baino ez dituzte erabiltzen. Kanpoan ere baditugu askak eta iturriak, baina itxita daude haurrak busti ez daitezen, buztina biguntzeko urik har ez dezaten, zikin ez daitezen... Hala, euria ari duen egunetan, aldarte txarrez ibiltzen dira, kanpora irten ezin direlako.

Beste aldetik, udan ura izaten da ekintza nagusien ardatza jolastokian. Ekintza programatu eta sonatu hauek ere hainbeste debekuren ondoren gatazka sortzaile izaten dira ikuspuntu askotatik. Haur batzuentzat, dagoeneko, ura ez da euren jolas gogokoa eta ez daukate beste proposamenik... Nola asmatu denekin? Bainua hartu eta hurrengo egunean, zenbait ama eskolara etortzen dira, irakaslearengana zera esanez: gaur ez dadila busti, bart dominístikuka ibili da eta. Zer gertatzen da, gurasoek ez dutela nahi urarekin ekintzak egin ditzagun?

Jarrera kontrajarri hauek eskola askotako ohiko gertaera dira, ziur aski gure kultura hiritarraren islada. Sarritan, ez zaie haurren premiei erantzuten eta, konturatu ere egin gabe, kontraesan batean sartzen gara: bai etxean eta bai eskolan haurrak josta daitezke urarekin udako hileetan; gero, ordea, urteko beste hilabete guztietan, egoera askotan, gure erantzuna zera izaten da: ez urik ukitu, gero; bustitzen bazara, hotzeria hartuko duzu; ez horrenbeste edan; ez putzuetan sartu. Ez... ez... ez... horixe da hitzik erabiliena haurrak ura aurkitzeko dauzkan egoeretan. Eta, horrela, nola ikasten du haurrak ura erabiltzen, baloratzen eta maitatzen?

## * ZER EGINGO DUGU?

Urarekin lotura duten ekintzak planifikatzean kontuan hartu beharko ditugun hainbat gauza daude, esate baterako, honelako egoera eta uneetan gertatzen direnak: aldagelan, eskuak garbitzean, uraren basoarekin dabiltzanean, jatekoa ukitzean, euren gorputza ezagutzen ari direnean, txiza zapaltzean, komunetik behera gauzak botatzean... Etxean gertatzen diren egoera asko antzerakoak dira: bideteko txorrota zabaltzeko edo aulki batera igo eta harraskako ura uki-

tzeko duten gogoa, komunean edo jantokian egiten dituzten okerkeriak, biluzik edo oinutsik jartzeko zaletasuna, bainualdiko hainbat gauza...

Urarekin zerikusia duten beste egoera batzuk ere badira, etxetik kanpora bizi dituzten beste esperientzia batzuetan, plazetan, parkeetan, hondartzan, igerilekuan... Egoera hauek direla eta, elkarrizketak sortzen dira familiarekin horrelakoetan zer egiten duten eta urarekin lotuta dauden gauzekiko zein interes duten jakiteko.

Ohar eta informazio horiek egunik egun jasotzen ditugu eguneroko gertaeren bidez eta asko grabatuta geratzen dira familiekin erlazionatzeko eskolan erabiltzen ditugun idatzizko eta ikusentzunezko komunikabideetan.

Gure erronka handiena zera da: gertatzen diren gauza guztiak nola *hartu* eta fruitua emateko bidean jarri, urak planetako bizitzan duen garrantzia balorarazi eta maitaraziko digun heziketa sakonduz. Arazo hori nolabait gainditzea lortu dugu behaketak eta planifikazioa hiru ekintza gunetan edo saretan banatuta: *uraren txokoa, euria eta putzuak, eta osterak eta igerilekuak*. Lan sistematikoa eta progresiboa gauzatzen lagun dezaketen estrategiak planifikatzea ahalbidetzen duten guneak dira, bai edoskitzaileen taldeetan eta bai nagusien taldeetan. Ardatz bat ematen duten ekintzak dira, eta gero ardatzak batuz sarea eratzen dutenak.

Jarraian gune bakoitzean egiten dugun lana aurkeztuko dugu, haur batek haur eskolan sartzen denetik (0 urte) irten arte (3 urte) egiten duen prozesuari jarraiki:

## * URAREN TXOKOA

*Uraren txokoa deitzen diogu haurrak elementu horrekin esperimentatzeko eta ikertzeko estimuluak aurkituko dituen leku, denbora eta materialen multzoari.*

Pixoihala daramaten haurrek estimuluak aurkitzen dituzte bainuan aldatzen ditugunean eta jatekoarekin dauzkaten lehen manipulazioetan. Egunerokotasunean erabat txertatzen diren uneak dira, bai eskolan eta bai etxean; banakako harreman afektiboetan murgiltzen gara eta horrek ura nola aurkitzen duten eta nolako portaera duten behatzeko aukera ematen digu. Haurra gauzak aurkitzera, behatzera, gertatzen denari buruzko galderak egitera bultzatu eta estimulatuko duen prozesu bat jarri behar dugu abian.

Uraren *lehen txokoa* oraindik pixoihalarekin dabiltzala oihalaka aldatzen diegun inguruan dagoen askatxoa da. Toki honetan egunero jolaserako tarte bat hartzen ahaleginduko gara. Gehienetan, pixoihala aldatu ondoren hartzen dugu jolasaldi hori edo taldea txikia den eguneko beste edozein unetan, halakoetan haurrak banan hartuta jolasteko abagunea izaten baita. Materiala, hasieran, ur xorrotada bat da, haurrak eskuarekin, oinarekin eta abarrekin aurkituko duena. Bere jokabidea behatuz, bere eskariak eta burutapenak asmatzen saiatuko gara. Galdera berriak egingo ditugu eta xorrotadaz baliatuz egoera berriak sortuko ditugu, esate baterako, txorrota itxi eta zer egiten duen ikusi. Berriro irekitzeko eskatzen du? Txorrotari begira geratzen da? Funtsezkoa da buruan darabilena interpretatzea eta galdera berriak egitea honelako esperientziek aurrera egiteko.

Pixkanaka-pixkanaka, aska ondoan edo gelan eta lorategian dauden edukinontzietan antolatuko dugu uraren txokoa. Bi haur batera jostatu ahal izateko eta euren kontura aritzeko egokia izan beharko du lekuak. Aska edo edukinontziaren ondoan, mahai edo apal batean, haurrek zenbait material



SHIRLEY HUGHES, *"¿Grande o pequeño?"* Anaya. Madrid, 1987

izango dute eskuragarri, guk aurretiaz hautatu eta prestatuko duguna. Behatzen duguna aztertu ondoren, txokoa egoki jarriko dugu gauzak maneia ditzaten, galderak egin ditzaten, gertatzen dena esperimenta eta beha dezaten, ura zeharkatuz, betez, hustuz, putz eginez...

Ahal dela, ontzi gardenak (botilak, basoak, tutuak, kazolak, pitxerrak, azpilak...) hautatuko ditugu, jokatzen ari diren bitartean, barruan zer gertatzen den ikus dezaten. Sarri-sarri aldatuko dugu txokoko materiala, haurren interesari eusteko eta egoera eta esperientzien eremua ahalik eta zabalena izan dadin.

Haurrak bere kabuz joka dezan, pertsona helduak oso argi azaldu behar dio zer egin dezakeen eta zer ez, beti jarrera argi, arrazoitu eta zuzen batez. Haurrek txokoan jokatu ahala aurkitu ditugun arazoei aurre egiteko, zenbait irizpide edo arau ezarri dizkiogu geure buruari. Hona hemen horietako batzuk:

*Ura ez da alferrik galtzen*: ontziak azpil edo pitxerrak ur zorrotada batez beteko ditugu. Erdi beterik daudenean, txorrota itxi eta ontzietako urarekin jostatzen jarraituko dugu. Jokoa amaiturikoan, ez dugu urik botako, bonbil edo *garrafoi* batean gordeko dugu, gero landareak ureztatzeko erabiliko dugu eta.

*Kontuz, arropak busti gabe*: urarekin jostatzen hasi aurretik, mahukak jaso behar dituzte beti. Haurren bat bustitzen bada, aldatzera eramango dugu.

*Ura askatik edo edukinontzitik kanpora ez botatzen saiatuko dira*. Botatzen badute, ura batu eta zergatik gertatu den aztertuko dugu. Beti edukiko dugu eskura zoluzapiren bat ura batzeko, txokoaren ondoan eta bista-bistan.

*Ez dugu aska butxatu edo ataskatuko duen materialik erabiliko*. Baldin eta harritxoekin, hosto lehorrekin, zerrautsarekin, ogi lehorrarekin, paperarekin... esperiementuren bat egin nahi badugu, esperimentazio mahaiaren txokoan egingo dugu.

Haurra gauzak egiten eta bere ekintza edo asmoak berbalizatzen hasten denean, honelako galderak eginez parte har dezakegu: zertan ari zara?, nola beteko duzu?, e.a. Helduaren parte hartzea iradokizunak eskaintzeko asmoarekin egingo da eta ez konponbideak emateko. Konfidantza giro batean, iradokizunek ideia berriak estimulatuko dizkiete haurrei, gauzen zergatiari buruz norbere buruari galdezka jarraitzeko. Halaber, giro horrek erantzun bila aritzeak dakarren gozamenari eta nekeari eusteko indarra eman behar die.

## * EURIA ETA PUTZUAK

*Euriaren eta putzuen bidez, hainbat aurkikuntza eta esperimentazio egin daitezke, egoera eta material naturalekin. Esate baterako, eskolako lorategian eta beste naturgune batzuetan. Eta egoera horiek bizitzea, gure ustez, beharrezkoa da umeak beste une batzuetan erabiltzen duen ura maita eta balora dezan.*

Euri egunak ezberdinak dira: zeruaren kolorea, argia, usainak, inguruko hotsak... Horrelako egunetan, zaparrada baten ostean, lorategi guztia putzuz betetzen da eta haurrek



Carme Solé Vendrell eta Josep M. *"Ura"* Parramón. Bartzelona, 1984.

plisti-plasta esperimentatzen dute, harriak boteaz, uretan euren islada bilatuz, buztina eskuekin moldatuz, lur bustiarekin *flanak* eginez, zolu bustian zotz batekin marrazkiaz eginez, pasiatuz eta gauza asko ikusiz: landareetako ur tantak, leku ezkutuetatik agertzen diren marraskiloak, ostadarra... Pentsarazi eta mintzarazi egiten duten egunak dira: zer gertatuko litzateke euririk egingo ez balu?

Eta hori guztia egiteko, haurra oinez ibiltzen hasi aurretik hasiko gara lanean, gurasoekin. Haurren interesak eta eskariak agertu baino asko lehenago erakutsiko diegu gurasoei aurrikuspen lan hori. Ekintza hauek aurkezteko, eskolako handienek egiten dutena erakutsiko diegu gurasoei: esate baterako, aita eskolara dator, hilabete batzuk dituen haurra besapean dakarrela, eurialdi batean; eskolako atarian ume talde bat aurkitu du, ongi hornituta eta marraskilotan atera direla esan diote. Ume horien alaitasunak, pozak, etorkizunean bere semeak egin ahal izango duena erakusten dio.

Baina badira beste estrategia batzuk ere urarekiko jarrera egokia sortzen eta eragiten laguntzeko: esate baterako, argazki-txosten bat egitea euria eta putzuak nola aurkitzen dituzten eta helduok nola laguntzen diegun erakusteko; edo eurite aldietan, udazken eta udaberrian, gela *girotzeko* elementuak (euritakoak, botak, zira edo eurikapusaia...) jartzea eta horiekin batera zenbait argazki itsastea haurrek horrelako egoeretan nolako atsegina hartzen duten erakusteko.

Horrelako estrategiei esker, elkarrizketa sortzen da guraso eta irakasleen artean, haurraren gainean, eta hirigune batean natura nola aurki daitekeen azaltzen diegu.

Azalpen horiek zehaztu egiten dira apirila eta maiatzeko euriekin batera egiten dizkiegun proposamenekin: apirila, oraingo tantak balio du pila; maiatz euritsu, urte ogitsu. Atsotitz horiek herri jakintzaren erakusgarriak *bizi* egiten dira eta gero ikasi eta maitatu. Udaberriaren etorrerak euripera bultzatzen gaitu, marraskilotan, lur bustian marrazkiak, pastelak, flanak, buztinezko irudiak... egitera. Eguraldi ona dagoenean, udan, txikienentzat, lehen bainualdia atonduko dugu upela antzeko ontzi baten ondoan edo barruan eskuekin *plisti-plasta* egiteko moduan. Putzuak sortuko ditugu zuhaitzen bueltan, oinez dabiltzanak oinekin askatasun osoz txiplitxapla ibiltzeko. Esperimentazio eta *eroaldi* hauek beharbeharrezkoak dira askorentzat, baina ume batzuek ez dute parte hartu nahi izaten eta errespetatu egingo ditugu.

Pixkanak-pixkana, bi urteren buruan egin den lanari esker, haur-eskolako azken ikasturtean (3 urte) euri egunak pozez hartzen dira, esan nahi duten guztiarengatik.

Haurrak berak eskatzen ditu zira, botak eta euritakoa. Haurrak badaki, eskolatik irtetzean, euri egun batean, gurasoekin doala, bidean aurkitzen dituen putzuetan sartu ahal izango duela. Gurasoek ikusten dute umea bere ahalmenetaz fidatzen den giro batean murgilduta tresnez baliatzen ikasten ari dela, horrelako egintzak, normaltasun osoz urte osoan egin ahal izateko.

## * OSTERAK ETA IGERILEKUAK

Ostera edo irteerak eta igerilekuak egoera egokiak dira, espazio eta *zerbitzu publikoak* erabiliz, *esperientzia kolektiboak ezagutu, komunikatu eta garatzeko* eta harremanak sortzeko.



Lehenengo urtetik bertatik haur, guraso eta irakasleen artean sortu diren harreman onei esker, haur eskolako bigarren urtea amaitu eta hirugarrena hastean, esperientzia kolektiboak proposa ditzakegu bai eskola barruan eta bai kanpoan egiteko. Kontua ez da halako egintza bat egiteko gurasoei laguntza eskatzea, *gurasoekin batera egiteko atontzea* baino. Ura gure artean antolatzeko aitzakia besterik ez da, baina aldi berean, eragin egiten du haur, guraso eta irakasleen interes eta beharrizanetan.

Ikasturtearen amaieran egiten ditugu denon artean antolaturiko lehenengo irteerak bi urteko umeen taldearekin. Eskolan dauzkagun landare, arrain eta txoriak haurren etxeetara eramaten ditugu udan zain ditzaten eta horrela joan-etorri txiki batzuk egiten ditugu. Irailean gauza bera egiten dugu gauzak eskolara itzultzeko. Irteera horiek oso egokiak dira taldean sartu diren guraso berriak umeen alaitasunaz jabe daitezen, aurreko ikasturteetan egin dutena ezagutu dezaten eta nola antolatzen garen eta egiten ditugun ikusteko.

Antolamendu moldakor, ireki eta koordinatuari esker lortzen dugu osterak egitea. Uraren bila abiatu eta hiriko hainbat testuingururа hurbiltzen gara: plazara eta han, iturria duen urmaelera; parkera eta han antzarak bizi diren lekura; arrainak eta dortokak dituzten denda edo etxeetara; igerilekura... Irteera bakoitzak inguru sozial batera garamatza eta han pertsonak eta lagun berriak aurkitzen ditugu harremanak sortzeko: landareen eta antzareen ardura duen lorazaina; animaliak zaintzen dituen aitona edo aita; igerilekuko begiraleak...

Lagun berri hauek ere *eskolako* bihurtzen dira eta gertaera berrien eragileak dira ikasturte osoan: lorazainak gure landare eta zuhaitzak zaintzen irakasten digu; uretako animaliez dakienak eskolara hurbildu eta hainbat gauza azaltzen dizkigu...

Igerilekuko begiraleak ere eskolara etortzen dira urarekin zer egiten dugun ikustera. Bi batzar egiten ditugu guraso, begirale eta irakasleen artean, espazio akuatikoetako haurren esperientzien berri elkarri emateko. Batzar horietan *ur lehorraren* egunean egiten duguna ere jorratzen dugu, geroago azalduko dugun moduan. Bestalde, gurasoek haurrek janzten eta eranzten egin dituzten aurrerapausuak kontatzen dituzte.

Lehen hiruhilabetekoan, bisitan bezala joaten gara, haurrek leku horien gainean zer dakiten ikusteko eta lagun berriak egiteko. Bigarren hiruhilabetekoan garairik hotzenean gutxitan irtetzen gara, baina egoera horiek bizitzen ditugu hainbat baliapideren bidez (osteretako argazkiak, horrelako egintzekin zerikusia duten irudiak dituzten liburuak, kantuak...). Martxotik apirilera bitartean, beste gauza bati ekiten diogu: astean behin, gela osoa *ur lehorra* daukan igerileku bihurtzen da, bertan sinbolikoki jolastu ahal izateko. Haurrek behar den guztia ekartzen dute, benetako igerilekura doazenean bezala. Batzuetan gurasoek eta begiraleek ere hartzen dute parte. Asteroko egintza honek igerilekuan igeri egiteko gogoa pizten du eta indartu egiten du haurraren autonomia jantzteko, eranzteko eta gauzak ezagutzeko orduan. Haurrek, oheratu aurreko bainualdian, gurasoei etxean ematen dizkieten azalpen eta motibazioei esker, etxean egintza paralelo bat sortzen da.

Hirugarren hiruhilabetekoan, umeek bizitasunez eta lasaitasunez igarotzen dituzte eskolan egingo dituzten azken hilabeteak. Irtetzea komunikatzeko eta gertatzen diren eta gogoratzen dituzten gauzekin elkarrekiteko aukera ematen digun motibaziobidea izaten da. Astean behin abiatzen gara, landareen kimuak agertzen direnetik ikasturtea amaitu arte. Berriro batzen gara espazio eta lagun zaharrekin. Azken hilean, ekainean, astean bi aldiz joaten gara igerilekura. Begiraleekin batera taxutzen ditugu lehen igerialdiak, giro lasai bat sortuz, haurrei eta gurasoei segurtasuna emateko eta haurrek zer egiten duten eta zer nahi duten behatzeko. Igerilekuan erabat murgiltzen dira uraren jokoan eta aurretik jasotako esperientzia eta sentsazioen eremua zabaldu eta aberastu egiten dute.

Egintza hauetara familiako bi edo hiru kide (gurasoak, aiton-amonak, osaba-izebak...) etortzen dira. Azkenean, familia guztiek parte hartzen dute.

Eskolan erabiltzen ditugun komunikabideetan, koadernoetan, argazki-bildumetan eta txostenetan geratuko da erregistratuta guraso eta irakasleek haur eskolako egotaldiari buruz egin dugun jarraipen eta balorazioa.

## * EPILOGOA

Esperientzia hau egiteko, behatu, onartu eta planifikatu beharra eduki dugu (planifikatu egin behar izan dugu egintza multzo bat era sistematiko eta mailakatu batean gauzatu ahal izateko, baita inprobisatzeko ere). Hiru egintza multzo horiek eginkizunaren ardatza izan dira eta esperientzia sare bat ehotu dute eguneroko gertaerekin, guretzat loturaz eta esanguraz beterik geratu diren gertaerekin.

Eskola eredu bat proposatu dugu gurasoekin batera: giza harremanak ahalbidetzen eta bakoitzaren nortasuna eta berezitasunak onartzen dituen espazio dinamikoa den eskola; bizitza kolektiboa duen espazioa; elkar ezagutuz, elkarrizketaz, elkarrekintzaz, eta hartu-emanez aberasten den espazioa.

Urak ondasun kolektibo eta urri horrek bere izaera bizitzeko, esperimentatzeko eta maitatzeko bidea eman digu eguneroko bizimoduko egoeren bitartez, haurren, gurasoen eta irakasleen interes eta beharrizanei erantzunez... eta heldu egin gaitu kolektibotasunean.

## * ESPERIENTZIA HONETAN PARTE HARTU DUTEN IRAKASLE ETA ESKOLAK

Esperientzia hau Cornellàko udalaren haur-eskoletan aspaldian gauzatu dena Catalunyako beste toki batzuetara hedatu da irakasle asko gogobetez eta jokabideen aldaketa erraztuz. Jokabide horiek, apurka-apurka, banaka eta taldeka, eskola egituratzeko beste modu bat eta urarekiko beste jarrera bat eragin dute, ura haurraren inguru hezitzaileko osagaitzat hartuz.

# MUSIKAREN ENTZUKETA, EGUNEROKO GERTAERA

*Montserrat BRASÓ I CAMPDERROS*
*Montserrat ESTIVAL I CODINA*
*Montserrat GAROLERA I SAYOS*
*Roser GOMEZ I FONT*

BARTZELONAKO BELLATERRA ESKOLA

*Escuela Bellaterra ikastetxe publikoa Universitat Autònoma de Barcelonako kanpusean, Cerdanyola-ko udalerrian dago. Aurkezten dugun esperientzia hau musika hasiera-hasieratik ikastetxeko hezkuntza-egitasmoan sartuta egon delako gauzatu ahal izan da. Eskolak beti izan ditu musika-espezialistak eta 1988-89 ikasturtetik hona baita dantza-arduradunak ere.*



Marie-Claire Bruley eta Lya Tourn, *"Enfantines"* L'Ecole des Loisirs. Paris, 1988

* ESPERIENTZIAREN ZERGATIA

Soinuen munduarekiko jakinahia piztu eta bultzatzeak musikaren ikaskuntza ezezik beste irakasgaiena ere erraztu egiten du, entzuteko ohitura eta entzumenaren sentsibilitatea ez baitira musikaren hezkuntzakoak soilik.

Belarriaren heziketa ona ahalbidetzen eta indartzen duen jardun musikaletako bat entzuketa da. Honen bidez, era sistematikoan jorra dezakegu hizkuntza musikala eta, halaber, musikaren mundura eta konpositoreengana hurbil gaitezke.

Entzuketak sortzen duen jarrera arretatsu eta adeitsuak bizitzako hainbat arlotan gure ekintzak bideratzen laguntzen digu. Besteekin batera bizi ahal ditugun sentsazio eta emozioak esperimentatzeko aukera ere ematen digu.

Haurren gorputzaren garapenak eta heltzeak daukan garrantzia dela eta, batu egin ditugu musika eta dantza, beti ere, gogoan izanda biek dauzkatela edukin espezifikoak baina alderdi komunak ere bai, ez erlazionalak bakarrik, baita osagarriak ere. Lotura honi esker, entzuketa lantzeko osagai berriak aurkitu ditugu.

Irakasleak sortaraz dezakeen jarrera ere kontuan izan behar dugu, musika bizitzeko daukan erak eragin egingo baitu entzuketan sortuko den giroan. Irakasleak haurren egoera animikoa antzemateko halako sentsibilitate bat garatu beharko du, komenigarria denean, haurren egoera animikoa egokitzen jakiteko.

Aipatu ditugun alderdi guztiak kontuan hartuta eta lagunekin musikaz gozatzeak dakarren ongizate giroa ikusita, eguneroko gertakari bihurtu dugu entzuketa haur eskolan.

## * ESPERIENTZIAREN EBOLUZIOA

Hasieran, musika-espezialistak jorratzen zuen arloetako bat zen musikaren entzuketa; berak kantatzen zuen, instrumenturen bat jotzen zuen edo grabazioren bat ipini.

Baina, irakasleok entzuketaren inguruan egin zitekeen lana behatu eta ulertu ahala, gero eta sarriago erabiltzen hasi ginen gelako zereginetan.

Haurrek musika entzuteko orduan zeukaten poza ikusi eta aztertu ondoren, denok batera hausnartu genuen gaia eta irakasleok eta espezialistek musikaren entzuketa haur eskolako porgramazioan eguneroko gertakari gisa sartzea proposatu genuen.

Iradokizun hori oso gustora hartu zuten lantaldeko guztiek, haurren onespenaz eta entzuketaren inguruan lan sistematizatuagoa egiteak ahalbidetuko zituen aukerez jabetuta.

Esperientzia gauzatzeko, haurrek astean zehar egunero musika fragmento berbera entzungo zutela erabaki genuen.

Dantza sartzeak entzuketarekin zerikusia daukaten hainbat elementu ekarri zizkigun, musikaren eta dantzaren artean lotura estua sortuz. Gainera, dantza musikaren bidez sartzeak zera eragin zuen:

- erritmoaren eta gorputzaren lanketa sakontzeko oinarrizko ahalegina egitea.
- musikaren entzuketa dantzaren mugimenduaren bidez garatzea.
- gorputzaren heziketak eskolan duen eginkizuna planteatzea eta gorputzaren hizkuntza izan daitekeenaren oinarri batzuk sortzea.

Gaur, musikaren entzuketa eguneroko jarduna bihurtu da haurrek eskatu eta gozatu egiten duten jarduna. Aste osoan musika berbera entzuteak obra zatiaren alderdi musikalak aurkitu eta aztertzeko eta musikari aurrea hartzeko aukera ematen die. Musika errepikatzeak eta hainbat ikuspegitik lantzeak ezagutzez eta erreferentzigunez osaturiko sare bat eratzen du; eta sare hori segurtasun afektiboaren, pertzepzio tenporalaren, esperientzia artistikoaren eta beste hainbat gauzaren motorea da.

## * ENTZUKETA MOTAK

Entzuteak duen garrantziaz jabetuta, hiru entzuketa mota sailkatu ditugu:

**a)** Inguruko hotsak, objektuenak eta norbere gorputzarenak entzunez egiten diren entzuketak.

**b)** Musika zuzena. Eskolako bizimoduan sartu dugun jardun bat da, ez bakarrik sarrien erabiltzen diren perkutsio tresnen eta kantuen bidez, baita beste musika tresna batzuk haurrengana hurbilduz ere.

Zuzeneko entzuketak, berez, musika grabatuaren aldean oso ezberdina den elementu bizi bat dauka. Sentsibilitate eta afektibitate lotura batez jolearen eta entzulearen artean sortzen den komunikazioaz ohartzea garrantzitsua da.

Eskolan horrelakoak egiteko aukera ematen diguten ekitaldi nagusiak hauek dira:

- Gabonetako kantuen kontzertua.
- Santa Cecilia eguneko kontzertua, espezialisten eskutik.
- Erdiko eta goiko zikloan dabiltzan haurrek (eskolatik kanpora hainbat musika tresna jotzen ikasten ari direnak) ematen duten kontzertua.
- Ikasturte amaierako kantu koralen kontzertua.
- Eskolako guraso eta lagunei eskaintzen zaizkien kontzertu txikiak.
- Eskolatik kanpora, hainbat musika ikuskizunak.

**c)** Eguneroko entzuketa egiteko aukera ematen digun musika grabatua:

Espezialistek musikategi bat sortu dute eta bertan musika mota pila bat batu dute:

- Kantaturiko obra zatiak (solistak, koralak eta bestelako taldeenak).
- Herri kantuak eta musikak.
- Hainbat autoreren lanak.
- Orkestra lanak.
- Musika tresna jakin bat nabarmentzen duten obra zatiak.
- Musika tresna bakarra duten obra zatiak.
- Izaera, egitura... ezberdina duten obra zatiak.
- Jazz, pop...
- Egun berezietarako musika.

## * OBRA-ZATI BATEN LAN DAITEZKEEN ALDERDIAK

Urte hauetan lortu ditugun esperientzia eta baliapideek gure artean ados jartzeko eta entzuketan musikaren eta dantzaren elementuak batuta haurrekin jorra ditzakegun alderdiei buruzko irizpideak finkatzeko balio izan digute.

Hala, oinarrizko eskema bat egin dugu, gure ustez entzuketa lantzean kontuan hartu behar dena jasotzen duena. Musikak berak adieraziko digu une jakin batean alderdi batzuk bakarrik landu beharko ditugun edo denak.

## * KONPOSITOREAK

Haurrei autoreen izenak *etxekotu* egingo dizkiegu, zein herrialdetakoak diren adierazi, garaiari buruzko erreferentzia

batzuk eman, izena kokatzen eta gogoratzen lagunduko dien zertzeladen bat kontatu...

* OBRA ZATIAREN KOKAPENA

Obraren eta zatiaren izena adieraziko diegu eta argumentoa ere bai, haurrek ulertzeko modukoa bada.

* INSTRUMENTUAK

Instrumentu ezagunenen soinua bereiztea. Instrumentu mota bakoitzaren ezaugarrien arabera sailkatzen jakitea. Analisi honek soinuaren koalitateak sakontzeko aukera emango digu. Giza ahotsaren berezitasunak bereiztea eta ederrestea eta bakoitzari dagokion hitza ikastea: sopranoa, tenorea...

* EGITURA

Obra zatia osatzen duten esaldi musikalak arnasketaren bidez lantzea.

Esaldi musikalen arteko berezitasunak, antzekotasunak eta errepikapenak antzematea eta gorputzaren mugimenduaren bidez adieraztea.

Obra zatiaren alderdi nabarmenenak azpimarratzea, azentuak, pultsazioak eta erritmoak kontuan hartuta, gorputzarekin biziz eta haur bakoitzaren gorpuzkera begirunez baloratuz.

* GORPUTZAREN HIZKUNTZA

Musika bizitzeko gai izatea bai geldialdian eta bai mugimenduan.

Musikak barruan sortzen duen mugimendua gorputzaren kanpoko mugimenduarekin erlazionatzea. Musika gorputzarekin adierazi beharrak barrenetik hobeko entzuteko modua eman diezaguke, geldirik entzuten dugunean.

Haurren artean eguneroko bizimoduan agertzen den gorputzaren hizkuntzak komunikazio bidea denez proposamen berriak eskainiko dizkigu mugimenduaren mundua sakontzeko.

Imitazioak gorputzaren hizkuntza den aldetik haur baten, talde baten edo irakaslearen ekarpenaz jabetzeko aukera emango digu. Ikusentzunezko tresnek erakusten dituzten ereduez ere balia gaitezke.



Marie-Claire Bruley eta Lya Tourn, "*Enfantines*" L'Ecole des Loisirs. Paris, 1988

Inprobisazioek -banakoek zein taldekoek- haurraren gorputzaren hizkuntza garatu eta bultzatu egiten dute. Bultzatu egingo ditugu horrelako mugimenduak espazioa hainbat irudirekin (zirkuluak, ilarak, bikoteak...) finkatuz eta, zenbaitetan, dantza bat eratuz.

### * UKIMENA

Musika bakoitzak ukimenaren bidez barruko eta kanpoko sentsazioak sortzen laguntzen digu. Sentsazio horiek haurrarekin eta haurren artean komunikazioa sortzen laguntzen digute eta euren gorputza eta afektibitatea ezagutzeko aukera ematen diete. Beraz, esperientzia hori bultzatuko dugu, banan, binan, taldeka eta hainbat jarreratan: zutik, etzanda, eserita...

Sentsazioa ezberdina izango da begiak irekita edo begiak itxita lan egiten badugu.

### * ALDARTEA

Obra zati baten entzuketak sor diezazkiekeen gogoaren egoerez jabe daitezela eta horiek adierazteko gai izan daitezela.

Obra zati bakoitzak eragiten digun aldarteak zehaztuko du zein lan mota egin daitekeen.

### * BALIAPIDEAK

Musikaren entzuketa sakontzeko, haurren eta irakaslearen eginkizuna erraztu eta bultzatuko duen egitura bat sortu eta mantendu behar da.

Eskola, urteen joanaz, jabetu da premia horretaz eta, bere giza eta diru baliapideak kontuan hartuta, ahal duena eman du honako hauek lortzeko:

- Entzuketa bilduma bat prest edukitzea, aurrez finkaturiko helburuak lortzeko: edertasuna, tinbre musikal argiak, musika moten aniztasuna...
- Gela bakoitzean kalitate oneko aparailu bat edukitzea edozein unetan entzuketa egiteko.
- Ikusteko materialen bilduma bat sortzea (musikoen, instrumentoen... argazkiak).
- Gelan gune bat hautatzea musikaren arloko eginkizunak bertan bildu eta indartzeko. Musika-txoko honetan taula finko bat dago entzuketarekin zerikusia daukaten zereginak indartzeko. Taulan obra zatiaren izena idatziko dugu eta konpositorearen eta nabarmendu nahi dugun instrumentuaren argazkiak itsatsi. Irudi horiek erreferentzia puntu bat izango dira aste osoko lana sendotzeko eta musiko eta instrumentuen kanpoko itxuraz



Marie-Claire Bruley eta Lya Tourn, "*Enfantines*" L'Ecole des Loisirs. Paris, 1988

jabetzen laguntzeko.

- Gela edo talde bakoitzeko, zintak mailegatzeko zintategi bat sortzea, eskolan hasitako musika-lana etxeratu eta etxekotu ahal izateko, hau da, eskolako lanari jarraipena emateko. Material horrek gelan haurrek ezagutzen dituzten obra zatiak, kantuak eta dantzak biltzen ditu, baita herri ipuinen bilduma bat ere; ikasturteak aurrera egin ahala, ugaritu egiten da. Zinta bakoitzak obra zati, kantu edo dantza bakarra izaten du alde bakoitzean, horrela haurrek askoz errazago maneiatzen baitute. Ostiral guztietan zinta bat hautatu eta eramaten dute asteburuan etxean entzuteko; astelehenean itzuli egiten dute. Hautaketa prozesu horrek norbere irizpideak, autonomia eta erantzunkizuna indartzen ditu. Zintak batzeko unean, haur bakoitzari eskatzen diogu azal dezala edo gogora dezala entzun duen musika eta balorazio txiki bat egin dezala. Halaber, galdetuko diogu ea bakarrik edo etxeko norbaitekin entzun duen eta bi aukeren artean zein alde dagoen.

### * BALORAZIOA

Lortu dugu entzuketa eguneroko bizimoduko ekintzen artean sartzea. Halere, proposamen musikalaren izaerak eta urte hauetako esperientziak erakutsi digu prozesu hau dinamikoa eta irekia dela eta ekin ahala aberastu egiten dela.

Aurrerapausuak baloratu eta gogoeta egitea komeni da prozesua ohitura hutsa bihur ez dadin, esperientzia aberasten duten berrikuntza etengabeen fruitua izan dadin.

Haurren entzuteko gaitasuna indartu egin dela ikusi dugu, eta ez entzuketa bat egiten denean soilik, baita eskolako bizitzako beste une batzuetan ere (solasak, ipuinak...).

Era askotako musikak ezagutzera emateak estilo mota guztien onespena eta jarrera irekia ahalbidetu du.

Zinten maileguak familien parte hartze estuagoa ekarri du eta eskolako lan musikalaz era bizi batean jabetu dira.

# BIZKAIA: Bi urtekoen ikasgelak eskoletan.

ADARRA PEDAGOGI ERAKUNDEA


Torinoko Haur Eskola

Autonomi elkarte honetan, modu isil baina geldiezinean nagusitzen ari den egoera baten aurrean gaude; eskola publiko nahiz pribatuetan bi urteko ikasgelak irekitzeko eskari eta baimenei buruz ari gara, hain zuzen.

ADARRAko partaideon eta Hezkuntzara emaniko profesionalon ustetan, Hezkuntzan ari diren elementu guztien gogoeta serioa eskatzen du egintza horrek.

Errealitate berri hau gero eta areago nagusitzen ari da, aurrez eztabaidatu edo behar bezala analizatu ere egin gabe ea Haur Hezkuntzako eredu egokia zein den, ea gure autonomi elkartean adin horietako hezkuntzaren inguruan izandako esperientziak zein diren, ea esperientzia horietaz nola balia daitekeen... Azken finean, adin txikienekoei eskaintzen zaien laguntza egituratzeko autonomi elkarte honetan eduki nahi dugun hezkuntza ereduaz inolako gogoetarik egin gabe.

Zerbitzuak ez sortzeaz gain, 0 eta 6 urte bitarteko etapari beharrezko duen berariazko hezkuntza-tratamendua jarraia emango dioten haur-eskola integratuak ez sortzeaz gain, etapa hori erabat egituragabetzen ari gara. Antza denez, LOGSEko artezpide eta "asmo onak" praktikatik zeharo baztertu dira.

Egungo haur-eskola eta haurtzaindegiek nekez iraun ahal izango dute, ezin baitute O eta 3 urte bitarteko zikloa osorik hartu. Urte t'erditik gorako umeek berdindu dezakete ekonomiaren aldetik, nolabait ere, O eta 2 urte bitarteko tartea, beti ere kostu handikoa dena.

Baina haur horiek eskoletan sartzen hasi dira, eta zentro horietako askorentzat irautea ezinezko izango da.

Bestalde, zerbitzu hauek eta haietan lan egiten duten profesionalek urteetan bilduriko esperientzia alde batera uzten dugu eta geure eskolak biztanle kozkor hauekin jendeztatzen ditugu. Eskola horiek ez daude inola ere prestaturik haurrak behar bezela hartzeko ez arlo profesionalean, ez arlo materialean.

Salbuespenak salbuespen; eskoletan txikitxook eta beren hezitzaileek dituzten baldintzak nahiko negargarriak dira.

Oraingoan ere, administrazioaren aldetik arduragabekeria da nagusi, gauzak egintzen bidetik ezar daitezela utzi besterik ez baitu egiten. Ez dago inolako hezkuntza-planteamendurik, ez eta horrek ekarriko dituen ondorioei buruzko ezein planifikaziorik ere. Hauek izango dira ondorioak:

- Haur-eskolak ixtea.
- 0 eta 2 urte bitarteko tartearen pribatizazio garesti baino garestiagoa.
- Haur-etapa guztiz egituragabetzea eta hezkuntza-planteamenduak mamigabetzea.
- Umeon hezkuntza-beharrei erantzun desegoki, inprobisatu eta lardaskatzailea ematea.

Biderik merke eta laburrena hartzen ari dira. 0 eta 3 urte bitarteko zikloarentzat baldintza oneko zerbitzu publikoak sortzeak inbertsioak eskatzen ditu, eta kostu handia dauka.

Beste alde batetik, gure autonomi elkartea pairatzen ari den jaiotze-tasaren jaitsiera itzelak hutsuneak eta irakasle soberakinak uzten ditu eskoletan. Bi urtekoentzako ikasgelak irekitzeak espazioei probetxua ateratzeko eta irakasleak han jartzeko balio du.

Arazo bat konpondu eta beste batzuk sortzen dira:

- Zer gertatuko da egungo egunean haurtzaindegietan eta haureskoletan lan egiten duten guztiekin?
- Zer nolako eskaintza publikoa egingo da 0 eta 2 urte bitarteko tarteari dagokionez?
- Nola antolatuko da 0-2 zein 2-6 urte bitarteko haur-etapa autonomi elkarte honetan?
- Nahaspila honetan, zer nolako jarraipena eta koherentzia izango dute haur-eskolaren tratamendurako hezkuntza- eta pedagogia-proiektuek?
- Nork hartuko du 2 urtekoen ikasgela hauen ardura eskoletan?
- Zein irakasleriak?
- Nolako prestakuntzarekin?
- Zein hizkuntz eskakizunekin?

# Baliabideak

# Haur eskolako esp



Berlineko KITA-BERATER-TEAM KREUZBERG



L'Hermitage Eskola, Brussela



Arrasateko San Andres Eskola



Bartzelonako "Nenes y Nens" Haur Eskola



Bartzelonako "Nenes y Nens" Haur Eskola



Bartzelonako "Nenes y Nens" Haur Eskola



Torinoko Haur Eskola

Inprobisazi asleren esku utziko da, duen prestaku
putzaren hizk akinekin gertatzen den bezala?
egingo dituc ntzitsuago dena, zer nolako hezkunt
direkin (zi kie txikitxooi, etengabeko inprobisaz
tan, dantz izanekin eta hezkuntza-planteamend
iten irizpide ekonomizale eta lehia
era honek guztiak ezinegon eta lel
ikastetxe publikoetan, bai pribatueta
Horren ondorioz, 2 urtekoen ikasgel
* U zen ari da mota guztietako zentroet
en plazak edo destinoa mantentze
Ezin da onartu administrazioa
katu, aurrez ikusi eta zai
egitea. Ezta proiektu
derik gabe egindako
izatea ere. Hori b
eskatzen ez badı
Eromen h
na ematek
beharrik
Pr
eta lu
zioa

KL
tak

lak
p

de

trua • 0-7 urte • IRAKASLE ESKOLA • Eskoriatza




EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION